

GUaiXE.net



Josefina Arregi
klinika **El Drogasen**
bideoaren platoa



Sakanerria >> 6

Irurtzungo San Martin festak
badatoz: bihar, **Larrazpitek**; etzi,
artisau azoka; eta etzidamu, egun
handia ospatuko dute



Sakanerria >> 7



Arbizuko Garapenerako Zentroan biltzen dira programako parte-hartzaileak. Lau hilabetez ariko dira trebatzen.

Sakana, ekiteko prest

Batuta 15 sakandarrez osatutako lan taldea da, "eginez ikasi" metodologiaren bitartez lan aukera berriak sortzen ikasten ari dena. Lan-munduan mentalitate aldaketa baten beharrak bultzatu die jarrera ekintzailearen aldeko apustua egitera.

>> 5

Euskara
oparitzeko
katalogo
laguntzailea
banatu dute

www.katalogoa.org-en kontsulta daiteke

>> 9

Biurdanan
talde gehiegi
gimnasio
bakarrerako

>> 7

Olatzagutiko
PSNko
zinegotziek
dimisioa
aurkeztu dute

>> 8

Gaztelaniaz
aritzen diren
bikote
euskaldunendako
eskaintza
Bakaikun

>> 6

Taupadak, azken
emanaldiarekin
Idaretaren agurra

>> 15

Ergoienako Udalak
2014an gutxienez lan
bat egingo du Dorraon

>> 7



EHEkoak etxeko
atxiloalditik
«euskaraz bizi»
deia egitera >> 3



Sakanako
aurreneko
saskibalo
topaketa >> 12



Haurrendako
album ilustratua
argitaratu du
Iker Uribek >> 14

Basogintza Sakanan
liburua

ESKANTZA BEREZIA

12€

Bazkideek
10€

Fonu plaza 23, Altsasu

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Haizea
ZORIONAK presiosa denen partez!!! Segi beti bezain sinpatika eta politta!



Nahia Bengoetxea Garisoain
ZORIONAK polit hori!!! Gure bizitza zurekin, alaiago da. Izugarri maite zaitugu. Muxu asko eta oso ongi pasa zure 13 urteak!!



Ioar
ZORIONAK maitia, Olatz eta gurasoen partez. Muxu montona.



Juanjo
ZORIONAK Juanjo!! Oso egun ona pasa. Zu launen partez.



Haizea Moro Alzueta
ZORIONAK Haizea!! Beti bezain alai eta txin-txo jarrai ezazu. Asko maite zaitugu bihotza!!



Haizea
ZORIONAK Haizea!! Oso egun polita pasa zure Etxarriko lehengusuen partez.



June Senar Ormazabal
ZORIONAK txapelduna!! Zorionak zure seigarren urtebetetzean! Zeinen ongi pasa zenuten e. Muxu asko denon partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

azaroak

8-14

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Taupadak. Azaroaren 9an, larunbatean, 19:30ean Irurtzungo kiroldegian. Fran Idareta, Haize Berriak banda, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko abesbatzak.

Larrazpitek: Gabi, Proyeckt, Inaland, Txarri, Bambu, Betelu eta Simpatik dj-ak. Azaroaren 9an, larunbatean, 22:00etatik aurrera Irurtzungo Larrazpi elkartearen.

Antzerkia

Tximino jakintsua. Azaroaren 8an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Jon Barbarin.

Erakusketak

Altsasuko II. Arte Azoka. Azaroaren 8ra arte. Astegunetan, 18:30etik 21:00etara, ostiralean 11:00etatik 14:00etara eta domeketan 11:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Arte dekoratzaileak. Azaroaren 12tik 29ra, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. Yolanda Arnedoren tailerra.

Ferietako argazki bilduma. Azaroaren 11tik 18ra arte, arratsaldez, Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Altsasuko

Mendigoizaleak.

Zinema

Blue Valentine. Azaroaren 8an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La gran familia española. Azaroaren 8an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 10ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Justin y la espada del valor. Azaroaren 10ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Txirindula irteerak

San Lorenzo ermita. Azaroaren 10ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bjoitza kanpinetik. **Burundako mendi bizikleta taldea.** 54 km.

Hitzaldiak

Arte, violencia y feminismo. Azaroaren 9an, larunbatean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Hizlaria: Josebe Iturrioz.

Marinaledako esperientzia. Azaroaren 10ean, igandean, 12:00etan, Lakuntzako udaletxean. Hizlaria: Juanjo Sanchez, Marinaledako zinegotzia.



Pentsioen iruzurra. Azaroaren 13an, asteazkenean, 11:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. Hizlaria: , **Edmundo Fayana, pentsio gaietan aditua.** Sasoia.

Tailerrak

Makillajea. Azaroaren 9an, larunbatean, 18:00etan Unanuko gaztetxean. **Gozamenez.**

Bestelakoak

Gaztain mozte eguna. Azaroaren 9an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Bakaikuko beheko basoan, Mandubita dermioan. 12:30etik aurrera elkartearen.

Argazki rallyko emanaldia eta sari banaketa. Azaroaren 9an, larunbatean, 19:30ean, Altsasuko lortia Kultur Gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Zentzumun gaua. **Afaria+transformista.** Azaroaren 9an, larunbatean, 21:30etik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 8an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 10ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Azaroaren 11n, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Altsasuko EHE, Iker Uribe, Batuta...

Esataria: *Alfredo*

>> Altsasu

EHEko kideek etxeko atxiloaldetik euskaraz bizitzeko nahia zabalduko dute



Claver eta Ramirez de Alda babestuta azaldu ziren jendaurrean.

Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragile euskaltzaleko kide Itziar Claver eta Haizea Ramirez de Alda azaroaren 23an eta 24an etxeko lokalizazio iraunkorrera eta isun ekonomikoa ordaintzera zigortuak izan dira (aurretik 6.000 euroko isuna ordainduta dute). Biek ere jakinarazi dute zigorra Gure Etxea eraikinean beteko dutela. Eta gonbitea luzatu dute bi egun horietan haiekin bat egiteko: "Gure Etxea eraikinetik atera gabe pasatu behar ditugun bi egun horietan euskaraz bizitzeko nahia berretsiko dugu eta guztion artean Altsasun zein Euskal Herri osoan euskaraz bizitzeko nahia ozen entzutea lortuko dugu!". Bi egun horietarako egitaraua prestatzen hasteko atzo batzarra egin zuten.

Kolonialismoa

Duela bi urteko *Ezabatu eta Euskaraz Bizi* dinamikaren baitan identifikatu zituen Foruzaingoak. Ondoren etorri den auzi-bidearen ondorio da aipatu zigorra. Halako zigorren iturburua "euskara, euskaldunak eta euskal herritarrak azpiratzea helburu duten borondate politikoetan eta marko juridikoetan" dagoela adierazi zuten. EHEkoek ziurtatu zuten, "kolonialismo garaian bizi gara oraindik: derrigorrez ezagutu beharreko erdal hizkuntzak, hezkuntza sistema arrotzak, administrazioarekin harremana izateko hizkuntzak eta abar inposatzen dizkigute". Euskaldunak behe mailako herritar izatera kondenatuak garela nabarmendu zuten. +www.guaixe.net

Non erabili

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa edo postrea doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ
50 €ko erosketetan % 5eko deskontua.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketan egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

2 produktu erosita, % 10eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupitona doan.

EROSKI CITY

ALTSASU

Eskaintza kanpainaren arabera.

SARABE TXOKOA

ALTSASU

30 €tik gorako erosketetan etxeko produktua doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

15 €ko gastuarekin, bibotea depilatzea doan. 30 €ko gastuarekin bibote eta bekainak doan. Eta ileapaindegian makilaje ukitua doan.

www.guaixe.net-en
zerrenda osoa ikusgai

SAKANA

Erriberan euskara elikatzen duen saskia

Errigora kanpaina aurkeztu dute: Erriberako produktuz osatutako saskia erosita, %25 Erriberako euskalgintzara bideratuko duen ekimena

Errigorak, AEK, Ikastolen Elkartea, Sortzen eta Zazpiak Bat Harreman Sarearekin elkarlanean, *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka* leloa duen kanpaina bulkatu du, udazkeneko kanpaina. Ekimen honi esker Nafar Hegoaldeko kalitate oneneko produktuez osatutako saskiak banatuko dira Euskal Herrian zehar.

Saskiaren prezioa 50 eurokoa da. Errigoratik diotenez "merkaturan erosiz gero ere 50 euroko salneurria izango luke saski horrek, baina gure kasuan bitartekaritza lana herritarrek modu boluntarioan egingen dutenez, %25 Erriberako euskalgintzari bideratuko diogu". AEK, Sortzen eta Ikastola Elkartearen irizpideei jarraituz, "zona no vascofona" izendaturiko eremuko proiektu zehatzetara bideratuko da jasotakoa. Aurten, egoera ekonomiko larria jasaten duen Lodosako Ibaialde kastolara, euskarazko irakaskuntza publiko eskatzen duen Euskaraz bizi eta ikasi herri ekimenera eta Erriberako AEKra eramanen da jasotakoa.

Zer da Errigora?

Errigorak Erriberako propio diren produktuak -zainzuriak, orburuak, arroza, olioak...- Euskal Herrian zehar zabaltzen ditu. Nafarroa hegoaldeko produktuei Eus-

kal Herriko plazan bidea eman nahi zaie, elikadura subirautea bulkatzeko. Eta Nafarroako Gobernuak izendatutako "zona no vascofona" delakoan daudenez, bertako euskalgintzari laguntza ekonomikoa eman nahi dio Errigorak. +www.guaixe.net

Saskia

Saskian ondoko produktuak daude: 2 olio botila (bat ekologikoa), 3 piper poto (bat ekologikoa), potxak, kardoak, borraja, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate-pikillo saltsa (ekologikoa) eta barazki krema (ekologikoa). Kalitate oneneko produktuak dira. Salneurria: 50 euro.



Iaz 1.500 saski saldu ziren eta 34.000 euro eman zitzaizkion Argia ikastolari.

Azaroaren 14a arte egin daiteke eskaera

Aipatu saskiak erosteko azaroaren 14a arte egin daiteke eskaeria. Saskien banaketa azaroaren 25etik 1era arte egingo da eta ordainketa, aldiz, abenduaren 2tik 5era bitartean.

Eskaerak non

Saskiak herriko ikastetxeetan, ikastoletan eta AEKn eskatu ahaliko dira. Horretaz gain, proiektu sinisten duen jendeaz osatutako sare zabala dabil kanpaina gauzatzen, tartean Sakanan.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Erabilatu eta...
FLORES S.L.
Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
Txistor ekologikoa

Uztubar industriak - Rf. - Faxa: 948 460 499 610321



Aingeru Mikeo

Biluzik

Berriki, Ryanair hegaldi merkeko konpainiak zalaparta sortu du, 2014rako egutegian azafatak arropaz arin eta itxura limurgarrian azaltzeagatik, eta sexista izan daitekeelakoan, hainbaterakundek auzitara jo dute.

Biluztasunak berarekin darma xarma eta ezbaia, kultura eta erlijioa tarteko: naturismoa, estetikoia, erotikoa, aldarrikapena edo marketina. Eta ez da kontu berria: mendebal-

deko kultura, greziarrek eta erromatarrek harrotasunez azaltzen zuten gorputz lirain biluzia; moral katoliko tradizionalarentzat, berriz, paganismoa eta haragikeriarako irudia izan da. Errenazimenduko pizkundetik aurrera, batera joan izan dira biluziaren estetika eta zentsura. Ikonoa da Modigliani margolari italiarrari, pubisko biloa agertzeagatik, erakusketa itxi ziotenekoa,

Parisen, 1917an. Euskal Herrian ere, sotana beltzak agindu zuen frankismoaren urte ilunetan; ondoren etorri zen 'gidoiak hala eskatuta' esaldia. Ile batzuk urdinu dira geroztik, eta biluztasunaren ganako lilurak ez du etenik, hobeki saltzeko, edo asmo bat burutzeko Bilboko suhiltzailek bezala, edo, zerbait aldarrikatzeko, haurrentako eskolara-ko garraioa eskatzen zuten

Valentziako amek bezala.

Bada, Sakanara ere heldu da Euskal Preso eta Iheslariantzat elkartasunezko biluztasuna, mendekuzko justiziaren gaitzespena. Modeloek paratu dute umorea eta freskotasuna, eta argazkilariek irudimena eta bikaintasuna. Kanean da Etxarriko Herrira erakundearen 2014rako egutegia. Biluzik gaude! Aurrera Herrira!

aingerumi@gmail.com

astekoa

hara zer diren

Europak HKPren borroka onartzen du

Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak (HKP) sari hau jaso du Parlamentu Europarraren eskutik, bere meritua: auto-antolaketak eta giza eskubideen urratze sistematikoaren salaketa egitea.

HKPk 2013 Europar Hiritar saria jasoko du baina ez du ahazten Europa kokatu behar dela Espainiako hipoteka-gatazkan, eta legeak egin behar dituela funtsezko eskubideak berma daitzen Europar Batasunean (EB). HKP ez du lan egiten sariak lortzeko, baizik eta justizia eta giza eskubideak bermatzeko.

HKPk nabarmendu nahi du kaleko pertsonen sufrimendua, eta alderdi politiko batzuen borondaterik ez funtsezko eskubideak defendatzeko garaian.

Gogorazten dizuegu HKPk proposatutako Herri Lege Ekimenak (HLE) 1.400.000 sinadura baino gehiago jaso zituela. Ekimeneko eztabaida Kongresuan burutzen zenean, EB auzitegiak deklaratu zuen Espainian ilegalak direla, 450.000 eta gehiago betearazpen-prozesu hipotekadunak eta nabarmendu zuen demokraziaren bahiketa, berritua, bankuko eta finantza-erakundeetako interesen aldetik.

HLEk defendatzen du hipoteka-egitearen aurrean, pertsonak bere zorra kitatzeko, interesak eta kostak barne, etxebizitza hipotekatua ematea, zorra desgerraraziz (ordainean eman atzeraraginezkoa).

HLEren proposamena da:

1. Ordainean eman atzeraeraginezkoa.
 2. Kaleratzen paralizatzea.
 3. Alokairu Soziala. Ezin da izan hileko soldataren % 30 baino gehiagoko alokairua, 5 urteko denboraldi baterako.
- Guztiak dakizuenez bezala, PPK eta bere gehiengo osoak proposamen hau zapaldu zuela.
- Ez ezazu utzi zure eskubideak gutxiesten, ez zaitez lotsatu bidegabekeriengatik eta banketxeek egin dituzten gehiegizko erabilerengatik. PAHra hurbil zaitez, zuri laguntzeko gaude eta zure laguntza behar dugu. AHAL.DA!!
- Osorik www.guaixe.net

Hipotekak Kaltetutakoen Plataforma

hara zer dien

Sexualitatea zahartzaroan eta zahartzaroa sexualitatean

Zorionez, zahartzaroak aktibitate sexualean baino ondorio bortitza- goak sortzen ditu kirolean, laneko jardueretan, bistan, entzumenean, memorian... Hala ere, sexualitatean isilpeko arrastoa uzten doa.

Sexuala den guztiarekin bezala, gorputzeansortarazten dituen aldaketak ezberdinak dira gizon eta emakumeetan. Garai honetan fenomeno oso interesgarria gertatzen da: zahartzaroak berdintzen du gaztaroak desberdin duena.

Testoesteronaren mailaren jaitsierak gizon adinduak desmas-

kulinizatzen eramatzen ditu (beraz, feminizatzen doaz) eta estrogenoen mailaren jaitsierak emakume adinduak desfeminizatzen eramatzen ditu (beraz, maskulinizatzen dira). Sexu bakoitzak hasitako ibilbideak bestearengana hurbiltzen du.

Sexuen arteko erantzun sexualak ere berdintzen dira: intentsitate eta presa gutxiagorekin; estimulu lagungarri gehiagoren beharra (fisikoak eta sinbolikoak). Bien orgasmoak intentsitate gutxiagorekin azaltzen dira,

baina gorputzeko zona erogeno- en sentsibilitatea handitu egiten da (gehien batez zaguena direnak). Badirudi aro honetan bigorputzek elkar ulertzea erabaki dutela, baina koitoaren exekutibitate kanpo.

Emakume adinduak (nahiz eta kanpoko estrogeno aporteak hartu ahal izan), duela denbora luze ez dituztela hilerokorik eta obulurik. Hala ere, obulutegiak ez daude zeharo itzalita. Ez dituzte estrogenorik fabrikatzen, baina bai androgenoak eta estronak.

Horregatik pubiseko ilea, azaleko elastikotasuna, ileko ditzira eta bolumena eta titien tentetasuna galtzen dute. Bular-gerri-aldaketen proportzioa ere aldatu egiten da. Bajina laburtu, estutu, elastikotasuna galdu eta lehortu egiten da. Bajinaren paretak meheagoak eta ahulagoak bilakatzen dira. Aluan ere aldaketak sortzen dira. Ezpainak finagoak bihurtzen dira eta klitoria handitu egiten da. Batzuetan pisaren galera areagotzen da.

Olatz Berastegi

gutunak

Atal honetan ahalik eta irizki gehienek tokia izan dezaten **2.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunetan izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Nafarroako Gobernuaren jarrera eta udalen finantziarioa

Ruben Goñi Urroz (Arakilgo alkatea), Joxi Bakaikoa Aristorena (Etxarriko alkatea), Lazaro Goikoetxea Beraza (Araizko alkatea), Patxi Goikoetxea Aristorena (Iruztungo zinegotzia), Ur Alguero Chivite (Aresoko alkatea)

Lastailaren 22an Esparza kontseilari bilera batean elkartu zen Sakana, Leitxaran, Urumea eta Araxes eskualdeko udal ordezkariekin. Ondoren gobernuak

zabaldu zuena zenetik urrun zegoen.

Kontseilaria Nafarroako Gobernuaren jokaeraren onurak saltzen ahalegindu zen, baina udal ordezkariak udalak pairatzen ari diren finantza egoera latzaren berri eman zioten, gero eta larriagoa baita. Era berean, finantzatze lege berri bat eskatu zioten, udalek herritarrendako oinarriko zerbitzuak emateko aukera izan dezaten, lege gintzaldi osoan pasabideetan barnako harat-honatetan miseriak kudeatzen ibili gabe.

Toki entitateei finantza nahikotasuna emateko behararen eta borondatearen gaineko baieztapen erretorikoen lekuko izan gara maiz, baina egindakoak argi erakusten du hartutako bidea kontrakoa izan dela eta murrizketa sistematikoek —gero eta handiagoak— udalen finantziarioari eta beren funtzionamenduari zuzenki eragin dietela.

Hau gertatu zen bileran: udal ordezkariak duintasuna eta finantziario nahikoa eskatu zituzten, gure udalek benetako beharrei aurre egin diezaieten, eta, horren

aurka, behar horiei irtenbidea emateko inolako planik martxan jartzeko aukera ukatu zutenen jarrera.

Egoera larria denez, gutxi batzuen onurarako diren proiektu erraldoien gainetik lehentasuna eman behar zaie tokiko azpiegiturretan dauden behar hurbilenei. Era berean, udal eskumenen esparru garbia zehaztu behar da behingoz, baita eskumen horiekin bat datorren finantziario ere, aitzakiarik eta alferrikako atzerapenik gabe.

Osorik www.guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Sakana, ekiteko prest



Batuta taldekoak Arbizuko Garapenerako Zentroan biltzen dira.

Batuta 15 sakandarrez osatutako lan taldea da, "eginez ikasi" metodologiaren bitartez lan aukera berriak sortzen ikasten ari dena. Lan-munduan mentalitate aldaketa baten beharrak bultzatu die jarrera ekintzailearen aldeko apustua egitera. Programan parte hartzen ari diren kideak gogotsu dabilta lastailaren 21ean hasiz esperientziarekin. Lau hilabetez arituko dira lanean metodologia berri horrekin ikasten, praktikatzen.

Esperientziak

Proiektua ezberdina da. Orain arte ikusi eta ikasitakoa alde batera uzten dute. Eginez ikastea da lan estrategiaren gakoa, "Learn-

by doing". Taldeko lana bultzatu egiten du. Batuta-ren helburua lan proiektu berriak eta, aldi berean, eskualdean lanpostu berriak sortzea da.

Taldea egunero Arbizun biltzen da, Utzubarren, Garapenerako zentroan. Euren ideiak aurrera eramateko aukerak, moduak lantzen dituzte. Mondragon Team Academyko aholkulariak astean zehar egindakoari forma eman eta, behar izanez gero, laguntza zehatza aurkitzeko orientazioa ematen diete. Proiektuak aurrera eramateko jarduerak edo ekitaldiak antolatuko dituzte. Berehala izanen dugu haien berri eta erne ibiltzeko gaitzatu dute.

Pilotua

Mondragon Team Academyk, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko Ekintzailetasun Unitatea eta MIK Ikertuntza eta Kudeaketa zentroak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren (NEZ) laguntzaz martxan jarritako SNEINN programa. Programako parte-hartzaileak garilean eta irailan izan ziren hiru informazioaioetara joandako 29 hautagaien artean aukeratu dituzte. NEZek Sakana aukeratu du programa estreinakoz eskaintzeko, baina etorkizunean Nafarroako beste eskualdeetara eta gainontzeko erkidegoetara zabaltzeko aukera izan daiteke.

Patatak, eta gehiago

Alegria de Iruña peñako 12 kide igande goiz eta eguerdia Sakanan eman zuten. Haiek herri batetik bestera mugitu ziren sakandarren esku-zabaltasunaren bila. Eta jaso zutena izan zen: 900 kilo patata, 2 zaku sagar, 33 kalabaza, 3 pixa oihal kutxa, intxaurrak, urrak, alubiak eta 430 euro. Peñakideak pozik bueltatu ziren Iruñera, jasotakoa Hermanitas de los Pobres emateko. Mojekin esku-zabalak izan ziren sakandarrek haien egutegi bat jaso zuten opari.



Pozik daude jasotakoarekin.

Langabeziak behera Altsasuko enplegu bulegoan

Lastaila despeditzean akaberan aurreko hilean baino 28 langabe gutxiago zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Altsasuko bulegoan izena emanda, guztira 1.489 (%1,85 gutxiago). Iruñeko zabalgunean izena emana duten arakildar eta irurtzundarren datuak behar dira Sakana gutziko datua ezagutzeko. Altsasuko bulegoan lastailan itxi ziren 492 kontratuetatik 23 besterik ez ziren mugagabeak izan.

Nafarroa

Herrialdean langabeziak, irailarekin alderatuta, %1,02 egin du gora (515 gehiago) eta guztira 50.922 dira lan bila ari diren nafarrak. Duela urte bat baino 71 gutxiago dira lan bila dabiltzanak Nafarroan, hau da, %0,14 gutxiago balio erlatiboetan. Emakumezkoak dira langabe gehienak: 26.396 (%0,25 edo 67 gehiago). Gizonezko langabeak, berriz, 24.526 dira (%1,86 edo 448 gehiago).



Langileak teilatua konpontzen.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari-kudeatzaile Maria Isabel Garcia Malok adierazi du langabeziak zazpi hilabetez jarraian behera egin ondoren, lastailan izandako igoera Tuterako eskualdean gertatu dela bereziki, nekazaritzan eta elikaduraren industrian. Bestalde, izandako langabeziaren urte arteko aldaketaren jaitsiera nabarmendu du eta pasaden hilabetea azken 6 urteotako igoera txikiena gertatu dela. Garcia Malok baloratu du "estreinakoz erregistratutako datuak aurreko urtekoak baino hobekak direla.

Mank-ek peoi-gidari lan poltsa sortuko du

Sakanako Mankomunitateak Hondakin Zerbitzuan peoi-gidari lanpostuetan izan daitezkeen premia puntualak zein aldi baterakoak betetzeko lan-poltsa sortzeko deialdia egin du. Hondakin bilketza sistema berriak sortutako egin-kizunak bete beharko lituzkete hautatutako langileek.

Interesatuek bete beharreko baldintzak dira, besteak beste: eskola-graduatua edo baliokidea

izatea, C mailako gidabaimena eta 1. hizkuntza eskakizunari dago-kion euskara maila izatea. Eskabide eredu ofiziala beteta eta gainontzeko egiaztagiria herenegundik aurkeztu daitezke, 15 egunez, Mank-en Lakuntzako egoitzan eta erregistroa@sakanamank.com e-postaren bidez. Mank-en asmoa da lan poltsa osatzeko hauta probak abenduan egitea.



Peoi-gidarien lan-poltsa egingo du Mankomunitateak.

ZERGATIK EZETZ ESAN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

www.citroen.es

ORAIN CITROËNEN, SEGURTASUN GEHIAGO, PREZIO HOBEAK.

SEGURTASUNA

LIKIDOEN MAILAREN KONTROLA DOAN

(BALAZTAK, ANTIKONGELANTEA, KRISTALGARBITZAILA ETA SERBODIREKZIOA)

%30 DESKONTUA PASTILLETAN, DISKOETAN ETA INDARGETZAILLETAN (Aldaketarako piezetan bakarrik aplikatuko da deskontua).

DISTRIBUZIO KIT-A

GASOLINA		DIESELA	
CITROËN C4 1.4i 90cv	CITROËN C4 1.6i 110cv	CITROËN C4 2.0 HDi 138cv	CITROËN C4 1.6 HDi
215€	215€	290€	290€

Gainontzeko modeloetan, distribuzio kitean %30eko deskontua (eskulana ez dago barne).

GURPILAK

NEURRIA 175/65 R14 82T	79,00 € MICHELIN	76,50 € BRIDGESTONE BSWLLT	74,00 € Goodyear Dunlop Continental
---------------------------	---------------------	-------------------------------	--

Bakoitzeko prezioa dena barne: gurpila, muntaia, orekatzea, balbula, ekotasa eta zergak. Gurpilen sailkapen energetikoari buruzko informazioa eska ezazu eta erabili gidatzeko baldintzen araberako eredu egokia.

GAINONTZKO NEURRIETARAKO

%70 EKO DESKONTUA 2. GURPILEAN

Salneurri ofizialen gaineko deskontua iragarritako marketan. Eskulana ez dago barne

PROMOZIOA 2013/10/15etik 2013/12/10 arte.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

>> Bakaiku



Es que... gaztelera ezagutu ginen!

Bikote euskaldunei zuzendutako tailerra antolatu dute Bakaikun

Biak euskaldunak izan arren harremana gaztelaniaz hasi zuten eta egunerokoan gaztelera erabiltzen duten bikote ugari daude. Jakina, bikotearen ispiluan begiratzen diren seme-alabengan eragina du hizkuntza jokabide horrek. Horregatik, euskaldunak izanda ere gaztelaniaz bizi diren bikotei propio zuzendutako ikastaroa

antolatu du Bakaikuko Udalak. Gemma Sagües unibertsitate irakasleak emanen du tailerra.

Izena ematea

Azaroaren 17an, domekan, 10:00etatik 14:00etara izanen da ikastaroa. Bitartean ludoteka zerbitzua izanen da. Izena emateko bakaikukoudala@gmail.com e-postara zuzendu. Matrikula, 10 euro bikoteko.

>> Altsasu

Zelandin itxitura berria

Ikastetxe publikoko teilatua zenbait konponketa lan egin ondoren, aste honetan Altsasuko Udalak kontratatutako hiru langileak Zelandi eskolako itxitura berritzen hasi dira. Lanak obra bukatu arteko kontratuarekin udalak hartu dituen hiru langile ari dira egiten. 61.014,9 euro bideratu dira eskola publikoko itxitura berritzeko.

Lan hori Hezkuntza Departamentuak 2006. urtean egin behar zuen, eskola handitzeko eta egokitzeko lan hitzarmenean hala jasoa zegoelako. Baina ez zuen egin. Altsasuko Udalaren asmoa da eskola handitzeko lanengatik departamentuarekin duen 160.000 euroko zorra negoziatzea eta txikitzea.



Aurki itxitura berria izango du Zelandi eskolak.

>> Olatzagutia

Kaleratzeak Salegin

Automozio arloan lan egiten duen tailerretik bost langile kaleratu dituztela jakinarazi du ELAK. Kaleratuek, batz besterik, 20 urteko antzinatasuna zuten enpresan eta sindikatuen arabera "batere duina ez den moduan kaleratuak izan dira". ELAK salatu du zuzendaritzak ez duela jakin garai berrietara egokitzen.

>> Altsasu



Nafarroakoan hiru sari lortu zituen.

Saiz, aukera bila

Fuengirolako IPV Beatriz Palace Hotel & Spak hartuko du errege eta erregina aukeratzeko gala, 22:00etatik aurrera. Hautagaien artean Natalia Saiz altsasuarra dago, Aragoi ordezkatu duena.

Lehiaketa irabazteko asmoz eta modaren arloan bidea egiteko aukerak zabaltzeko gogoz lehiatuko da Saiz. Aurreko egunetan gala prestatzen eta inguruak, bertako monumentuak, hondartzak, gastronomia eta enpresa babesleak ezagutzeko gidatutako bisitak izan dituzte parte-hartzaileek.

>> Ziordia

Onik opatu zuten galdutako zizazalea

Larunbatean, 23:30ean, onik opatu zuten Urdalur ingurura ziza bila joandako 64 urteko gizon tolosarra. Euripean, Urdalurko uharkan utzi zuen autora ezin iritsi zegoela ohar-tuta iloba bat gaztigatu zuen telefonoz eta hark 19:40 aldera larrialdi zerbitzuei pasa zien oharra. Harekin telefonoz harremanetan jartzerik ez zegoenez, Foruzaingoa, Guardia Civila eta Ertzaintza hasi ziren haren bila partzonerian. 23:30ean basozain batek Araban, Nafarroako mugatik gertu eta Urdalurtik 20 minutura opatu zuen gizona. Gizona onik zegoen, baina melamela ez baitzuen berokirik.

SAKANA

Trenaren historiaz

Navarra Televisioneko *Una mirada atras* saioan asteburuan trenak Nafarroan egin duen ibilbideaz ariko dira. 150 urteko historia errepausatze gonbidatuen artean daude Arturo Carreño eta Migel Jorge altsasuarra. Saioa larunbatean 16:00etan eta 22:00etan emanen dute, eta, igandean 9:00etan.

SAKANA

Josefina Arregi klinika El Drogasen azken bideoaren platoa



Bideoan Josefina Arregi zentroan hartutako irudi ederrak agertzen dira.

Lastaila hasieran Altsasuko klinika psikogeriatrikoan egon zen Iñaki Alforja zuzendari iruindarra. Hainbat irudi hartu zituen klinikan, gaixoen eta haien senideenak bereziki. Irudi horiek *Cordones de mimbre* kantuen bideo klip bihurtu dira. El Drogasen ama Altsasuko klinikan izan zen eta kantuarekin Alzheimer gaitza izan zuen amari omenaldia egin nahi izan dio. Nafarroako Alzheimer Gaixoen Elkarteak *Ahazten dutenez gogoratu* kan-

painaren barruan erabiliko du kantua.

Aipatu kantua El Drogasek asteartean argitaratu zuen *Demasiado tonto en la corteza* disko hirukoitzean jasoa dago. Zortzina kanta dituen hiru diskoz osatutako lana da iruindarrak kaleratu duena. *Alzheimer* izenburuko diskoan gaitz hori edo oroitzapenak dituzte hizpide. *Matxinada* izenburukoan gai sozial eta politikoak dituzte hizpide musikariak. *Glam* izenburukoan diskoak ixten du bilduma.

>> Etxarri Arantz

Enneco parkearen lege eta ingurumen egokitzapena zalantzan jarri du Gurelurrek

Gurelur elkartearekin atzo biltzekoak ziren sustatzaileak. "Ennecok basoarekin errespetu osoz jokatu du eta basoa bera da Ennecoren baliorik handienetakoa"

Talde ekologistak gogora ekarri duenez, Nafarroa Bizirik-ek sustatu duen egitasmoak "Aralarko Komunitateko Interes Eremuan (KIE) dagoen balio ekologiko handiak dituen harizti bat urbanizatzea aurreikusten du". Gurelurrek dio Basopokale eta Danbolintxulo artean daudenak tamaina handiko haritzak direla eta oihanpe handia dagoela, "horrek fauna ugari egotea dakar, hegaztiak nabarmenduz".

Gurelur sustatzaileekin harremanetan jarri da kezka adierazteko eta erantzunik ez duela jaso adierazi du. Talde ekologistako

kideendako "harrigarria da KIEko landaretza kentzeko lanak hasiak egotea, proiektuak ez duenean babestutako eremuetarako legeak agintzen dituen ez ikerketarik ez baimenik".

Auzolanak

Enneco, memoriaren haritza hartuko duen eremuan berriki hasi dira boluntarioak auzolanean sasiak kentzen. Halaxe aritu ziren ostiralean 15 bat pertsona. Horren ondoren mantendu behar diren zuhaitz eta guneen inbentarioa egiten da. Baita tokiaren neurketan topografikoa ere, gero proiektua bertako baliabideetara eta orografiara moldatzeko. 10 cm baino gehiagoko diametroa duten landareak mantendu beharko dira, bai-



Enneco hartuko duen eremuan auzolanak hasi dira. UTZITAKOIA

ta haritz landare txikien eremuak, eta hainbat gorosti eta elorri ere.

Horretarako baimena eman zuen Ingurumen Departamentuak.

» Ergoiena

Dorraon lan bat eginen du udalak

Ergoienako Udalak heldu den urtean 306.850 euroko aurrekontua izanen du, aurtengoa baino 26.630 euro handiagoa. Aurrekontua handitu bada, hein handi batean, argindar, erregai eta bestelako zerbitzuen prezioen igoeratik izan da. Inbertsioen atalean Ergoienako Udalak 16.000 euro ditu Dorraon eginen den lan batera bideratzeko. Ziurrenik alondetiko teiladura berrituko da. Uda-

laren laguntzaz aurretik Lizarragan eta Unanun markesina bana eraiki ziren.

Heldu den urterako udalen asmoen artean daudedatu babesaren inguruko auditoria egitea eta lan arriskuen prebentzioa langile guztiei zabaltzea, baita behin-behinekoei ere. Horretaz gain, eskaintzen dituen zerbitzuei eutsiko die Ergoienako Udalak. Hala, asteazkenetan Altsasuko azokara joate-



Dorraako txoko baten ikuspegia.

ko autobusak joan etorriak egiten segituko du. Bestalde, bi ikastaro

ere martxan dira: eskulanak Unanun eta pilatesa Lizarragan.

Hirigintza plana

90. hamarkada erdialdetik berritu gabe dago Ergoienako hirigintza plana. Gaurkotuz denez, hartan oinarrituta lan egiten du udalak, eta horrek lan gehigarri bat eskatzen du. Ergoienako Udalak plana egokitzeko prozedura aspaldi hasi zuen. Lurralde okupazio estrategia ere aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari. Dokumentua ez zela egokia erantzun zuen gobernuak, baina gehiago argitu gabe. Bitartean legegia aldatu egin da eta beste modu batera egin beharko da tramitazioa. Lehen pausoa gobernuak eman beharko luke, baina ez du ematen.

» Arakil / Irurtzun

Biurdanan talde gehiegi gimnasio bakarrerako

Irurtzungeo DBHko ikasleak hartzen dituen Biurdana institutuak ikasle masifikazioa dagoela eta Iruña iparraldean ikastetxe berria egitea aspaldi ari da aldarrikatzen Iruñeko Iparreko Institutu Batzordea (Biurdana, Irurtzun, Orkoién, Sanduzelai eta Patxi Larranizar

ikastetxeetako guraso elkarteek osatua). Masifikazioaren adibide gisa gimnasia egiteko dituzten espazio arazoak jarri dituzte.

Astean 30 gimnasia klase daude ikastetxean eta haietatik 19tan bi klasek bat egiten dute. Beraz, bat gimnasioan gelditzen da eta bestea

kalean edo ekitaldi aretoan aritzen da. Zuzendaritza taldeak Hezkuntza Departamentuari egoera horren berri eman zuten eta konponbidea proposatu zuten: Biurdanako institutuko kirol pistak estaltzea (250.000 euro) edo, behin-behinean, Anaitasuna kirol elkarteak azpiegiturak erabiltzea. Departamentutik hainbat aukera aztertzen ari zirela erantzun zieten, baina udazkenarekin eguraldi txarra iritsi da eta ez dago erantzunik.



Biurdana txiki geratu da eta institutu berria eskatu izan dute.

» Ergoiena / Altsasu

Gazteak, gozamenenez



Denetarik ekarriko du Gozamenenezek.

Sexualitatearen ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini nahi du Gozamenenez programak. 14 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago. Aipatu programaren bidez, gazteen artean sexualitateari buruzko hausnarke eta arlo ezberdinen inguruko eztabaida sustatu nahi da eta publikoak eta ohikoak diren eremuetan sexualitatearen presentzia bultzatzea. Hainbat teknikarik eta Izargiko hezitzailea dira guztia aurrera ateratzeko aritzen direnak.

Egitaraua

Makillaje tailerra. Azaroaren 9an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara Unanuko gaztetxean.

Zentzumen gaua (afaria eta show transformista). Azaroaren 9an, larunbatean, 21:30etik aurrera Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Yo tambien (zine foruma). Azaroaren 15ean, ostiralean, 21:45ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Makillaje tailerra. Azaroaren 16an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara Lizarragako eskolan.

Gau erotikoa (zentzumen ibilbidea+erotikik+dastatze beroa). Azaroaren 22an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Lotsagabeak (antzerkia). Azaroaren 28an, ostegunean, 11:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. DBHko ikasleendako.

» Irurtzun

San Martin festak ate joka

Irurtzungeo patroiairen eguna astelehenean izanen da eta haren omenenez festa giroa izanen da bihartik aurrera Irurtzunen. Egun handia astelehena bada ere, igandeko mikologia erakusketak eta artisau azokak jende ugari erakarriko du Irurtzunerara. Azken horretan denetarik aukera eskaintzen duten 27 artisau-postu izanen dira.

Artisauak

Ehoziri taldea (ehoziri lana, Irurtzun), Fina eta Francisco (espartza, Irurtzun), Iker Alegre (larrua, Irurtzun), Javi Garcia (margotutako zurezko kutxak, Irurtzun), Lorena, Virginia eta Peio Ramirez (zura eta eskulanak, Irurtzun), Sanau (Senegalgo artisautza, Irurtzun), Boutzakht Saffa (Marokoko artisautza, koadroak, Irurtzun), Maria Esparza (bitxigintza, Izurdiaga), Amalur-Itxipuru (xiba tailerra eta postua, Arakil-Irurtzun), Jose Luis Etxeberria (saskigintza, Azpeitia), Rebeka Erice, Espiral (Bitxigintza, Burlata), Victor Arrieta (zura tailerra, Donostia), Sergio Gomez (polsak eta gerrikoak,



Etzidamu ateratzekoa da konpartsa.

Cascante), Blanca Amoztegi (bisuteria, Satrustegi), Agustin Agirre (beira eta gemoterapia, Iruña), Nerea Etxegarai (zeramika eta harrria, Iruña), Felix Barbero (zahatoak eta larruak, Errioxa), Saralegi-Nagore (Taloak, Irurtzun), Plazaola Gozotegia (gozogintza eta ogia, Latasa), Anatxonea (gazta, Baraibar), Aidin mermeladak (mermeladak, Ororbia), Alejandro Garcia (Zura eta tornua, Iruña), Juan Carlos Esain (landare eta loreak), Begoña Gomez (Pomadak, Iruña), Marino (eztia eta garrapiñatuak, Iruña), Ines Flores-Zurlan (karamelatutako haziak, Lasarte) eta Galburu (ogia, Lekunberri).

Egitaraua

» Azaroak 9, larunbata
16:30ean Nafarroako txapelketa: Irurtzun-Uharte.
19:30ean Taupadak kontzertua.
22:00etan Larrazpitek.

» Azaroak 10, igandea
10:30etik 14:00etara Artisanu azoka eta mikologiari buruzko erakusketa.
17:00etan Herri kirolak. Sakanako harri-jasotze eskolako erakustaldia plazan (euria egiten badu pilotalekuan).
18:30ean Gozogintza txapelketa eta dastatzea. Aurkezpena 18:00etan Erga Larreak elkartearen.

» Azaroak 11, astelehena
9:00etan Gaiteroekin dianak.
11:30ean Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
12:00etan Meza.
14:00etan Adinduen bazkaria.
16:30ean Fulanito y menganito antzezlan, kultur etxean.
16:30ean Mus txapelketa Iratxo elkartearen. Izena eman 16:00ak baino lehen.
17:30etik 20:30etara Dantzaldia Rubi Berriak taldearekin. (Euria eginez gero frontoian).
18:00etan Haurrendako txokolate-jatea.
20:30ean Zezensuzkoa.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

GANUZA
SUKALDEAK
Sukalderako altzariak
Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak
 Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
 c.ganuza@cocinasganuza.com
 www.cocinasganuza.com
 Etxarriko industrialdea
 ETXARRI ARANATZ

9 lagunendako
TAXIA
Jon Kordon
 948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

nc
nerea cenoz
 nutrición
 Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)
 info@nereacnoz.com
 nereacnoz.com
 Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)
Pisua kontrolatzeko dietak:
 · Argaltzeko dietak
 · Pisua hartzeko dietak
 · Mantentimendu dietak
 · Haurdunaldi-dietak
Patologia ezberdinetarako dietak
 Kirol-elikadura
 Elikadura arazoak
 Nutrizio-hezkuntza

» Olatzagutia

Udala zinegotzi sozialistarik gabe

Hilaren akaberan halaxe gelditu daiteke. Lastailaren 30eko udal bilkuran sozialista olaztiarren zerrenda-buru Juan Jose Galarza Aldabek kargua utzi zuen. Manuela Terrados Illanek eta Miguel Angel Solis Herrerak bide bera hartu eta zinegotzi kargua utzikodutela jakinarazi dute. Hilaren 28ko bilkuran izanen da hori. Alderdi sozialistatik jakinarazi dute haiek ordezkatzeko "benetako sozialistak" aurkeztuko dituztela.

Solisek eta Terradosek adierazi dute ez dutela alderdiaren babesik sentitu. Ideia sozialisten alde lan egiteko prest sartu zirela, "batez ere berrindustrializazioaren alde. Baina ez digute utzi".



Sakanan PSNk zeregin handia duela nabarmendu dute, "baina martxa honetan desagertu egingen da. Falta larriagatik bi zinegotzietatik alderdiak diziplina espedientea

zabaldutuen porlandegian hondakinak balioztatzearen alde ez zutelako egin.

2011ko udal hauteskundeetan Bilduk 5 zinegotzi lortu zituen

(382 boto, %49,95), PSNk hiru (231 boto, %30,2) eta PPK bat (120 boto, %15,69). Hilaren akaberan bederatzitik hautetsietatik sei geldituko lirateke udalean.

Altsasun

Aldameneko herrian sozialistek bi zinegotzi lortu zituzten. Bi karguetako bat hutsik dago 2012ko ilbeltzean Mari Jose Notario zerrenda buruak dimisioa eman zuenetik. Zortzi hila-betez ordezkari sozialistarekin zen Javier Donlo zinegotziaren osasun arrazoienatik. Garagarrilean dimititu zuen eta bere tokia Braulio Salvador Calvok bete zuen. Irailean Altsasuko Talde Sozialistak Salvador alderditik botatzeko eskatu zuen, zinegotzia "aldebakarrekotasunez" jokatzen duela argudiatuz. PSNtik adierazi dute hutsik dagoen aukia betetzeko hautagai baten uko egitearen zain dutela.

» Arbizu

Hildakoen aldeko agur zibilak arautu ditu udalak

Arbizuko Udalak herrian hildakoen aldeko agur zibilak egiteko ordenantza indarrean da. Horren arabera, erlijiorik gabe bizitzea hautatu dutenen omenez halako ospakizun duin nahiz pertsonala egin ahal izateko, zenduaren bizitza ikuskeraren arabera ekitaldiak antolatzeak aukera ematen du ordenantzak.

Alkateak edo hark eskuorde-

tzen duen zinegotziak emanen du hileta edo agur zibiletarako guneak erabiltzeko baimena, betiere Arbizuko Udalaren Erregistrora eskabidea aurkeztu ondoren. Eskatzailearen datuekin batera, hildakoaren eman beharko dira, eguna eta ordua zehaztearekin batera.

Ospakizun horiek udaletxeko batzar aretoan edo sarreran egi-

nen dira. Jende asko biltzea aurreikusten bada eskaeran hori adierazi beharko da eta edukiera handiagoko udal aretoaren batean egiteko baimena eskatu beharko da. Aldi berean erabili nahi den materialen zerrenda gehitu beharko da. Hileta edo agur zibilak astelehenetik igandera ospatu ahalko dira, 11:00etatik 13:00etara goizez, eta 16:00etatik 18:00etara arratsaldean.



Agur zibilak udaletxeko batzar aretoan edo sarreran egingo dira.

» Lakuntza

Marinaleda Lakuntzara


Marinaledako Juanjo Sancho zinegotziak hitzaldia eskainiko du igandean Lakuntzan, 12:00etan

Marinaleda Sevilla probintziako herri bat da, Sierra Sur ibarrean dagoena eta Genil ibaiaren arroan dagoena. Nekazal herri bat da. Hori jasotzen da Wikipedian. Baina Marinaleda nekazal herri bat baina askoz gehiago da. 1979tik Juan Manuel Sanchez Gordillo da

alkatea (Colectivo de Unidad de los Trabajadores-Bloque Andaluz de Izquierdas, CUT), eta bere gidaritzapean, ezkerreko ideologiatik abiatuta, iraultza soziala burutu dute herrian, "Marinaleda, una utopia hacia la paz" lelopean. Horrela, langileen eta nekazarien borrokan antolatuta, garapen indize altua lortu dute eta euren herrian ia %100eko enplegu bete

dago. Sistema kapitalista albo batera utzita, modelo ekonomiko alternatiboa garatu dute, arrakasta lortu duena. Jauntxoan lurrak okupatu zituzten herriari eman eta lurrak modu kolektiboan kudeatzeko, etxebizitza sozialak bulkatu dituzte, nekazal produktuei lotutako industria sustatu dute...

Marinaledako esperientziaren berri emateko bira egiten ari da



Sanchez Gordillo da Marinaledako alkatea.

www.marinaleda.com

Marinaleda herriko web ofiziala eta herriko informazio guztia.

bertako zinegotzi Juanjo Sancho. Bingen Amadoz kazetariaren eta Lakuntzako zinegotzi Rafa Pellejoren bitartez Lakuntzara iritsiko da igandean, 12:00etan, Lakuntzako udaletxean hitzaldia ematera. Lakuntzako Udalak Sakanako zinegotziak eta interesa duten herritar guztiak hitzaldira gonbidatu ditu, Marinaledako errealtatea gertutik ezagutzeko.

SAKANA

Ibarrera bigarren fasean iritsiko da kolon minbiziaren detekzio goiztiarreko programa

Osasunbidearen asmoa da orain pixkanaka hasi eta 2017rako 50 eta 69 urte bitarteko nafar guztiak kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programaren barnean egotea. Ibarra osatzen duten hiru osasun eskualdeetako adin horretako sakandarrak programaren bigarren fasean sartuko dira.

Programa horren helburua da kolon eta ondesteko hasierako faseko tumoreak detektatzea,

hasierako sintomak agertzen hasi aurretik; horretarako, sintomarik gabeko biztanleen gorozkietan odolik detektatzeko azterketa egingen da. Horren bidez, biztanleen artean ohikoena den minbizi mota horretako intzidentziak eta heriotzak gutxitzea da helburua, azken urteetan intzidentziak handitu egin baitira, bizi-itxaropenak gora egin duela eta bizimoduak aldatu egin direlako (elikadura, sedentaris-

moa, obesitatea).

Gaur egun, Nafarroako emakumeen artean heriotza gehien eragiten dituen minbizia da, eta bigarren arrazoa gizonen artean, biriketako eta trakeako minbiziaren atzetik. Goiz diagnostikatzen bada, gaixotasun honen kasu guztien % 90etan sendatu daiteke; hala ere, ehuneko % 50 baino ehuneko txikiagora jaisten da fase aurreratuan detektatuz gero.

» Altsasu

Bi urteko zigorra botila batekin erasotzeagatik

Hasiara batean fiskaltzak hilketa saiakeragatik sei urteko espetxe zigorra eskatzen bazuen ere, eskaerajaitsi eta aldean arteko akordioa lortu zen. Horren arabera, 25 urteko M.V.C.O. altsasuarrari bi urteko espetxe zigorra eta hiru urtean biktimarengandik 200 metrora ez hurbiltzeko agindua jaso du. Eraginako zauriengatik 658 euro eta ondorioengatik 3.000 euro ordaintuko ditu. Aurrekaririk ez duenez, ez da espetxean sartuko.

Gertaerak joan den urteko garagarrilaren 21ean, 6:00etan izan ziren. Gauean zehar hainbatetan elkarren kontra egin zuten bi gazte berriro opatu ziren. Zigortua izan denak besteak eskuan zuen botila hartu eta harekin aurpegian jo zion. Botila hautsi eta lepoan zapim-ko zauria egin zion. Hiru egunez ezin izan zuen bere ohiko bizimodurik egin eta hamar egunetara sendatu zen. Sudurrean eta lepoan orban bana gelditu zaizkio.

» Olatzagutia

Iturritxo kaleko zintzilikariak aldatzear

Auzokideen kexuen ondoren auzo-konpostagailuak kiroldegi ondoan jarri dira. Hiru zintzilikarioak kalean gora eramanen dituzte

Garilean Iturritxo kalean zeuden bi auzo-konpostagailuak eta hondakin bilketa sistemako zintzilikarioak kentzeko eskatu zuten hainbat auzokidek. Auzo-konpostagailuen usainarekin eta erakartzen dituzten euliekin kexu ziren. Hondakin organikoak pertzetan utzi beharrean poltsetan uzten zirela eta katuek haiek urratu eta hondakinak lurrean barreiatuta, zikin gelditzen zela ere salatu zuten.

Lastailaren leian bildu ziren Sakanako Mankomunitateko ordezkariak hondakin bilketa-

ko azpiegitura horiek erabiltzen dituzten herritar guztiarekin. Bileran bertan jakinarazi zieten auzo-konpostagailua tokiz aldatuko zela. Kokapen berrirako hainbat aukera eman zizkieten eta kiroldegi ondoan dagoen larrialdi gunearen ondoan kokatzea adostu zuten. Aldaketa lastailaren 3an egin zen. Gutxi batzuei etxetik urrun gelditzen zaienez, auzo-konposta egiteari utzi eta atez ateko bilketa aldatu dira.

Hiru zintzilikarioak Iturritxo kalean gora eramanen dira, Ingurabide kalearen ondora. Lurre-ra lotzeko torloju bereziak erabili direnez haiek jarri dituen enpresa noiz kenduko dituen zain daude.



Zintzilikarioak Ingurabide kalearen ondora eramango dira.

Zailtasuna

Hondakin bilketa sistema berria ezarri den herrietan berdeguneak eta bestelako espazioak erabili dituzte auzo-konpostagailuak

jartzeko. Mank-eko arduradunak jabetu ziren Olatzagutia erdian halako espazio gutxi daudela eta jende asko bizi dela. Iturritxo kalean bilketaarako azpiegiturak jar-

Informazioa

Argibideak eskatzeko edo zalantzak argitzeko 900 730 450 telefonora hots egin daiteke. Edo www.sakana-mank.com/hondakinakblog, www.facebook.com/sakana-mank eta www.twitter.com/sakana-mank sare sozialetan informazioa eskuratu daiteke. Baita info@sakana-mank.com e-postaren bidez ere.

tzea hasierako proposamenean jasoa zegoela adierazi digute eta inork kexurik azaldu ez zuenez ados zeudela ulertu zutela eta han jarri zirela.

» Bakaiku

Gaztaina moztearen bueltan

Gaztaina latxa, gaztaina saboia, sardaia, gaztaina-zigorra... halako hitzak ibiliko dituzte ahoan bihar Bakaikun. Kultur Batzordeak gaztain mozteeguna antolatu du. Haren bidez garai batean basoko fruitu horrek zuen garrantzia gogorarazi eta basoaren kudeaketan ola

egiten zen jakiteko balioko du. Hitzordua larunbatean da, 10:00etan, Mandubita dermionan. Beheko basoan ibilbide gidatua antolatu du Bakaikuko Kultura Batzordeak. Hura despeditu ondoren, 12:30ean, Bakarrekotxea elkartean gaztaina moztearen

inguruko erakusketa ikusteko aukera izanen da elkartean. Gaztaina mota ezberdinak daude eta haiek dastatzeko aukera izanen da. Gainera, Koxko tabernan udazkeneko pintxoak eskainiko dira, gaztainez, ondoz eta tripotaz egindakoak.



Bihar gaztainak biltzera joango dira bakaikoarrak, 10:00etan.

SAKANA

Euskara oparitzeko katalogo laguntzailea

Urte akaberarekin batera etxeko txikiei eta ingurukoei opariak egiteko garaia izaten da. Euskarazko liburuak, musika edo jokoak oparitu nahi eta zer oparitu ez dakitenek aparteko laguntza opatuko dute Euskarazko Produktuen Katalogoan. 16. urtez Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunitetako Euskara Zerbitzuek editatu dute katalogoa eta 130.000 ale banatu dituzte euskararen eremuaren luze zabalean.

Edizio berrituan gurasoendako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteendako makina bat erreferentzia opatu daitezke. Horretarako



Katalogoa www.katalogoa.org web gunean kontsulta daiteke.

merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin dute berrietasuna, egokitasuna eta kalitatea

kontuan hartuta. Bilaketa errazteko katalogoak zortzi atal ditu: musika, liburuak, aldizkariak, filmak,

www.katalogoa.org

Paperean dena jaso ezin denez, Interneten Katalogoak askoz ere eskaintza zabalagoa du, argitaletxeen denda birtualetan zuzenean erosteko aukerarekin. Hala, merkatuan opatu daitezken beste makina bat artikuluren berri jaso daiteke sarearen bidez. Urte osoan bizirik eta eguneratzen

tua dagoen gunea da www.katalogoa.org, argitaletxeek berek aukera baitute produktu berriak zuzenean sartzeko merkatu ahala eta deskatalogatuak gelditu direnak kentzeko. Hartara, webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta irakurleek beren komentarioak egin ahal izango dituzte bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuaren inguruan.

adinaren araberako banaketa egiten da eta bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ere erantsi da.

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

OILATEGIKO ANIMALIEN PENTSUA 10KG.KO POLTSETAN

BUJANDA
okindegia

bai

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

TXIKITXO
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
**Eguneko menua
8,25€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu

PILOTA-

NAFARROAKO TXAPELKETA: Pilota txapelketako 4. jardunaldian Irurtzun eta Zugarralde berdinu zuten. Banaka Agirre 18-

15 irabazi zion Irurtzongo Armendarizi. Binaka, Ongayk eta Mitxelenak 9 tantotan utzi zituzten Olano eta Iribarren (Zugarralde).

Pala

SAKANAKO NESKEN VIII. PALA TXAPELKETA 26 biko lehian

Aurreko asteburuan hasi zen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarriko Nesken Pala Eskolarekin batera antolatutako Sakanako Emakumeen VIII. Pala Txapelketa. 26 biko daude lehian. Gaur, ostiralean, 2. Jardunaldia jokatuko da Etxarri Aranazko Euskalerritari pilotalekuan.

ARISTORENATARREK IRABAZI

Nafarroako Erreminta Txapelketako Emakumezkoen Paleta Gomako Txapelketan, 2. jardunaldian. Yanira eta Saioa Aristorena ahizpa etxarriarrek 30-22 irabazi zieten Leundari eta Kontini.

2. jardunaldia

Gaur, Etxarri Aranatzen

Kimuak:

Uxue-Narrea O. / Narrea-Irurtzu
Maitena-Elai / Ane-June
Atsedena: Elorri-Saioa

Haurrak:

Amair-Narrea L. / Aroa-Oihane
Maddalen-Nahia / Dinora-Ainhoa

Kadeteak:

Maddi-Amaia / Ariane-Uxue
Irati L.-Lide / Irati I.-Ane
Garazi-Aiora / A.Nagore-Maddi

Gazteak:

Uxue-Andrea / Olaia-Izar
Ainara-Ekhiñe / Andrea-Irati L.
Atsedena: Irati-Miriam

Helduak

19:30ean: Narrea-Garazi / Laura-Nagore

20:15ean: Aitziber-Ixone / Maitte-Saioa

21:00etan: Ainhoa-Maddi / Yanira-Rebeka

1. jardunaldiko emaitzak:

Kimuak:

Elorri-Saioa 9 / Uxue-Narrea O. 18

Kadeteak:

A.Nagore-Maddi 18 / Maddi-Amaia 25

Irati I.-Ane 15 / Garazi-Aiora 25

Ariane-Uxue 25 / Irati L.-Lide 16

Gazteak:

Olaia-Izar 25 / Ainara-Ekhiñe 12

Irati-Miriam 18 / Uxue-Andrea 25

Helduak:

Maitte-Saioa 30 / Narrea-Garazi 3

Laura-Magore 30 / Ainhoa-Maddi 16

Pilota

Bakaikoa Gazteen Mailako Buruz Buruko finalera

Labrit pilotalekuan jokatuz iren Nafar Kirol Jolasen Gazteen mailako Buruz Buruko finalerdiak, asteazkenean. Huarteko Lasori 18-15 irabazi zion Erreka taldean dabilen Bakaikoa etxarriarrek, partida oso bizian. Laso aurreratu zen, baina partida bukaerari lortu zuen garaipena Bakaikoak. Etxarriarrek Mateo (San Miguel) izan du aurkari finalean.

Pilota

Ezkurdia, berriro sorpresa ematera

XALA MENPEAN HARTU ETA GERO, ASTELEHENEAN AIMAR OLAIZOLAREN KONTRA ARIKO DA

“Oso pozik gaurko partidarekin!!! Eskerrik asko animo guztiengatik!!!!” adierazi zuen astelehenean Joseba Ezkurdiak twitter bidez. Ez zen gutxiagorako. Final laurdenetako lehen jardunaldian Xalaren kontra aritzea tokatu zitzaion eta inork gutxi espero ez zuenean 19-22 irabazi zuen arbizuarrak. “Ezin dutsinetsiere” zioen ETBko kameraren aurrean, pozik eta harriritan. Final handi bat balitz bezala gozatu zuen garaipena.

Hurrengo partida Irujo irabaztetik datorren Aimar Olaizola oilarraren kontra jokatuko du, astelehenean, Tolosako Beotibarren. Ea berriro sorpresa ematen duen.

Sakeak eta abiadura

Hasieran 10-4 aurreratu zen Xala. Ezkurdia ez zen oso fin ibili errestean. Baina behera egin beharrean, egoerari buelta ematen hasi zen. Sakea izan zuen bidaide. Eroso aritu zen partidak izan zuen erritmo

bizian, eta sekulako pilotakadak jotzen hasi zen, abiadura handiak. Xala desorosotzen hasi zen eta tantoak galtzen hasi zen. Lehia oso estua bilakatu zen, eta 19ko berdinketaren ondoren, azken hiru tantoak Ezkurdiaren aldean erori ziren. Katedra, dirua eta pronostikoak kontra zituen baina lehen puntua lortu zuen arbizuarrak.

Aimar ondo iritsiko dela uste du arbizuarrak

Aimar Olaizolak Irujoren kontra irabazitako partidaren minduta bukatu zuen. Ezker hankan zaintiratu du goizuetarrak. Baina asteleheneko partidara ongi iritsiko dela uste du Ezkurdiak. “Aimarrek esku bat atzean lotuta izanda ere, aukera handia luke irabazteko. Bere jokoa egiteko ez du arazorik izango eta bere kontrako partida oso zaila izango da” adierazi dio arbizuarrak Berrria egunkariari.

Aizkora

Kopa altxatuta, EHkoa eta Nafarroakoa buruan

FLOREN NAZABALEK ERRAZTASUN HANDIZ IRABAZI DU URREZKO AIZKORAKO TXAPELDUNEN LIGAKO KOPA

Urrezko Aizkorako Txapelaldunaren Ligako Kopa

1. Floren Nazabal	22:09
2. Juanjo Lopez Azpilikueta	25:13
3. Aitzol Atutxa	27:12

Floren Nazabalek gainontzeko aizkolariak baino koska bat gorago jarraitzen du. Hala demostratzen ari da behin eta berriz. Larunbatean Urrezko Aizkorako Txapelaldunaren Ligan sailkatutako lehen hiru aizkolariak, Floren Nazabalek, Aitzol Atutxak eta Juanjo Lopez Azpilikuetak Kopa jokatuz zuten eta aurreikusitako moduan etxarriarra izan zen txapelalduna, alde handiarekin. Erabateko nagusitasunarekin lortu zuen Kopa altxatzea. Egin beharreko 6 lanak kontuan hartuta 22 minutu eta 9 segundo behar izan zituen etxarriarrek, bigarren sailkatuz Juanjo Lopez Azpilikueta 3 minutu eta 4 segundo atereaz. Aitzol Atutxak 5 minutu eta 3 segundo gehiago behar izan zituen.

Lehen proba, 45 ontzako ahalik eta kolpe gutxien emanda moztekoa izan ezik, gainontzeko proba guztietan gailendu zen Naza-



Nazabal, Lopez Azpilikueta eta Atutxa. Etxarriarra, egun, aizkolari onena da.

bal: 45 ontzako erlojuz kontra, zutikako kana-erdikoa, 60 ontzako zeinek lehenago ebaki, 45 ontzako zutik, 45 ontzako etzana, eta 4 kana-erdiko iraupen proba. Urrezko Aizkorako Txapelaldunaren Liga irabazi ondoren, Kopa ere lortu du etxarriarrek. Zorionak!

Nafarroakoa eta Euskal Herriko prestatzen

Atzera ere garbi geratu da etxarriarrek sasoi betean jarraitzen duela eta, egun, aizkolari osoena eta one-



Aimar Olaizola eta Ezkurdia, Binakakoan lehiatu zirenean.

Ezkurdiak argi du bere jokoa egiten segitu beharra duela. “Erasoan jokatuz, pilotari abiadura eman, nik agindu eta aukera dudanean ondo bukatu”. 22 urterekin txapelketako gazteena da. “Gazteena bai, baina ilusio handiena duena ere. Aurten ikasteko nahi dut aprobetxatu. Ligaxkan sartzea eta horrelako pilotariekin jokatzea gauza handia da niretzat. Dena berria da eta oso ondo etorriko zait esperientzia hartu eta ikasteko” gaineratu du. Finalerdietara sartzeko aukerakin ikusten ote den galdetuta “aukera beti dago baina badakit oso zaila izango dela” erantzun du. “Aimarren eta Irujoren kontra aha-

Lau terdia. Final laurdenetako ligaxkako 2. jardunaldia

Xala - Martinez de Irujo (larunbatean, 17:30ean, Ogetan. NITRO)
Bengoetxea VI.a - Idoate (igandean, Astelenan, 17:00etan. ETB1)
Saralegi - Arretxe II.a
Olaizola II.a - Ezkurdia (Azken bi partidak astelehenean, 16:30ean, Beotibarren. ETB1)

lik eta gusturenen gelditzea da orain inportanteena. Momentu onean nago eta hori aprobetxatzen saiatuko naiz” azpimarratu du.

Mendia



Evaristo Noveleta-rekin eta Ismael Makedarekin batera Jose Javier Ruiz, Iñigo Barbarin eta Iker Garcia joango dira Etiopiarra.

Noveleta eta Makeda Jinbar ur-jauzia lehenengoz jaistera

Astelehenean 5 espeleologonafarrek Etiopiako bidea hartuko dute. Tarteandade Evaristo Noveleta eta Ismael Makeda irurtzundarrak. Helburua Etiopiako Jinbar ur-jauzia jaistera da, Etiopiako ur-jauzi handiena eta Afrikako bigarren handiena dena. 500 m inguruko salto bertikala da, oraindik esploratu gabe dagoena. Ur-jauzi hori historian lehen aldiz jaitsi nahi dutenafarrek, Ondoren Monte Ras Dashen mendia (4.533 m) eskalatzea da erronka, Etiopiako mendirik handiena. Biak Simien Mountains Parke Nazionelean daude.

HELBURUAK

Espedizioarekin Etiopian barrankismoa ezagutarazi nahi dute, bertako garapenturistikoa eta ekonomikoabulkatzen lagun dezan. Jinbarren bidea zabaltzeaz gain, etorkizunetarako espedizioetarako beste jaitsiera posibleak zehaztu nahiko litzukete. Guztiarekin pelikula filmatzea litzateke beste asmo bat. Informazio guztia ondoko blogean topa daiteke: ethiopia-canyon.blogspot.com.es.

Areto futbola

FUTSAL SAKANA TXAPELKETA
Arbizu eta
Auzomotojorik lider

2.jardunaldiko emaitzak

Etxarriko Gaztetxe 3 - Racing San Migel 15
Bunker 1 - Auzomotojorik 8
Bil Toki 1 - Arbizu K.T. 8
Atsedena: Iturmendi
Informazio guztia: www.futsalsakana.es

Zazpi talde ari dira lehian Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketan. Momentuz Arbizu eta Auzomotojorik dira liderrak, seina punturrekin. Atzetik daude Racing San Migel eta Biltoki, hiruna punturrekin, eta Iturmendi, Etxarriko Gaztetxe eta Bunker; punturik gabe.

3. jardunaldia

Larunbatean, Uharte Arakilen
16:00etan: Auzomotojorik - Bil Toki
17:00etan: Etxarriko Gaztetxe - Bunker
18:00etan: Racing San Migel - Iturmendi
Atsedena: Arbizu K.T.

Frontenisa

Urdiaingo I.
Frontenis Txapelketa
martxan

28 bikote ari dira lehiatzen, 4 multzotan

Urdiaingo Gazte Asanbladak antolatutako Urdiaingo I. Frontenis Txapelketa asteburuan hasi zen. Guztira 28 bikote ari dira lehiatzen, 4 multzotan banatuta. Hasieran ligaxka jokatu da eta multzo bakoitzeko onenek egingo dute aurrera. Informazioarako: urdiaingo.gazteasanblada.blogspot.com.es.

28 bikoteak

1. Taldea: Andoni Etxeberria-Koldo Murgiondo, Goyo Chamorro- Jose Cano, Ane Eskala-Uxue Mendinueta, Iker Flores-Carlos Galarza, Aritz Arbizu-Gurutz Zubiria, Miguel Ocaña-Angel Arrieta eta Alex Lopez de Goikoetxea-Julen Goikoetxea.
2. Taldea: David Irigoien-Oihan, Eneko Larraza- Mikel Galarza, Eneko Vilar-Ander Iraizoz, Joseba Juango-Ekaitz Alegria, Gaizka Ocaña-Julen G.A., Iker Etxeberria- Miguel Javier eta Xabi Maiza-Endika Mendinueta.
3. Taldea: Iñaki Berastegi- Imanol Etxarri, Aritz-Iñigo, Mikel Otermin-Peio Bengoetxea, Kepa Paniagua-Ander Galarza, Iker Alustiza-Adur Irigoien, Aitor Gabirondo-Alain Gabirondo eta Josu Reparaz-Oihan Mendinueta.
4. Taldea: Gaizka Lanás-Asier Pardo, Eneko Lopez-Urko Gabirondo, Ion Mendiá-Unai Azkona, Jon Irigoien-Jon Etxarri, Aitor Zubiria-Lukas Fernandez, Iker Zeberio-Ibon Ruiz de Egin eta Mikel Lizarraga-Asier Berastegi.

Saskibaloia

Sakanako I. Saskibaloi
Topaketak abian

PREMINI MAILAKOAK ARIKO DIRA, ASTEBURURO, MAIATZERA BITARTEAN



Mutil talde bat entrenatzen, Altsasun.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloi Topaketak antolatatu ditu, hainbat laguntzailerekin batera: Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Udalak, Altsasu eta Irurtzongo Saskibaloi Taldeak eta Andra Mari ikastola. Aipatu topaketetan premini mailako taldeak ariko dira, 8 urte-tik 10 urtera bitarteko neska-muti-

koak, eta azarotik maiatzera arituko dira lehian, Irurtzunen, Etxarri Aranatz eta Altsasun. Helburua saskibaloia sustatzea da eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea. Ez da txapelketa lehiakorra, eta horregatik ez da sailkapenik egingen.

Partidak igandetan jokatu dira, Altsasuko Zelandi kirolde-

1. jardunaldia

Azaroak 10, igandea, Altsasuko Zelandi kiroldegian
11:00etan: Putterri - Beriain
11:00etan: Martinsasti - Balankaleku

gian edo Etxarri Aranazko San Donato ikastetxeko pilotalekuan. Zelandin jokatzeko direnean bi partidak batera jokatu dira. Aldiz, Etxarri batak bestearen atzetik. Hasiera batean 4 talde lehiatuko dira: Putterri, Beriain, Martinsasti eta Balankaleku. Irurtzongoek aurrerago egingen dute bat, taldea osatzen dutenean.

Egutegia

Topaketan 12 jardunaldi jokatu dira, apirilaren 13ra bitartean. Apirilaren 27an herri ezberdinetako neska-mutikoen nahasita jokatzeko aukera izango dute, Lakuntzan. Berdin maiatzaren 11n, Irurtzunen. Maiatzaren 25ean saskibaloi 3x3 jardunaldia antolatuko dute Altsasun, azken festa moduan.

Kiroldegia

Euskararen erabilera sustatzeko kirol
monitoreendako ikastaroa

MANK-EK ANTOLATU DU ETA LAU ORDUKO BI SAIO IZANEN DIRA, BATA ASTEARTEETAN ETA BESTEA LARUNBATETAN

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak kirol begirale eta entrenatzaileendako Ikastaroa antolatu du, Kirol Zerbitzuarekin batera bulkatutako Kirola Euskarazekimenaren barruan. Helburua kirol jardueretan euskararen erabilera sustatzea da, eta talde berean ikasle euskaldunak eta erdaldunak daudenean nola jokatu jakitea.

Metodologia

Ikastaroa Ttakun Kultur Elkarteak eman du eta *Hezitzaileekasko egin dezakete* metodologian oinarritua dago. Entrenatzaile, begirale eta hezitzaileei euskararen erabilera modu planifikatuan eta sistematikoa lantzeko bide bat proposatu nahi zaie, eta lan hori egiteko estrategia eta tresna zehatzak eskainiko zaizkie. Ikastaroan, taldekideen hizkuntza errealitatea aztertuko da, errealitate horie-



Peio Goikoetxea udako futbol campusa gidatzen, euskaraz.

tako helburuak zeintzuk izan daitezkeen aztertuko da, eta hizkuntza-helburuak lantzeko estrategiak aurkeztuko eta landuko zaizkie. Egoera errealean grabatutako bideoak landuko dira eta jolas eta dinamiken bidez estrategiak probatuko dira.

bilerak bukatzeko.

Kirol Zerbitzuak 2007an haurrendako kirol eskaintza aztertu zuen eta azterketa hori eguneratzeko premia ikusi da. Horrela, herriz herri udalen eta herriko taldeen kirol eskaintzaren datuak jasoko dira. Asmoa urtero jarraipena egitea da. Bestetik, begirale euskaldunen lan-poltsa eguneratu du Kirol Zerbitzuak. Aipatu lan-poltsan izena emateko Kirol Zerbitzuarekin jarri behar da harremanetan (kirolak@sakana-mank.com).

Kirola Euskaraz

Orokorrean euskararen erabilera murriztu da Sakanako kirol munduan. Arazo nagusietako bat kirol begirale euskaldunak aurkitzeko arazoa da. Baina begiraleak euskaldunak direnean ere, euskararen erabilera ez da gehiegi landu. Horregatik Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak jarri zuten martxan, elkarlanean, Kirola Euskaraz egitasmoa, Sakanako kirol jardueretan euskararen era-

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

11. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 1 - VALLE DE EGÜES 3
Lagun Arteak ez zuen ongi jokatu eta Eguesibarrek merezimendu osoz irabazi zuen partidaren. Iruñerrikoak aurreratu ziren, eta nahiz eta Bakaikok berdintzea lortu, bigarren zatian Eguesibar Lagun Artearen gainetik pasatu zen.

Sailkapena >>

1. San Juan 25 p
13. Lagun Artea 11 p

Asteburuko jardunaldia

CORTES - LAGUN ARTEA
(Larunbatean, 16:00etan, Cortesen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

8. JARDUNALDIA


ALTSASU 2 - LAGUNAK B 2
SAN JORGE 1 - ETXARRI ARANATZ 4
AMAYA 0 - LAGUN ARTEA B 1
Altsasuk ez du partidarik galdu. Lagunak B taldearekin bina berdindu eta gero, 2. postuan daude Claverrin mutilak, Beti Kozkor liderrarengatik puntu eskas batera. Lagunak izan zen hasieran aurreratu zena, baina Altsasuk berdintzea lortu zuen. Atzera ere Lagunak gola egin zuen, baina partidaren bukaera aldera bina berdindu zuen Altsasuk, puntu bat poltsikoratuz. Etxarri garaipen potoloa lortu zuen, Iruñean San Jorge taldeari 1-4 irabazi eta gero. Etxarriarren animorako oso ongi etorri da gol sorta hori. Bukatzeko, Amayari 0-1 irabazi zion Lagun Arte B-k.

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor 19 p
2. Altsasu 18 p
11. Lagun Arte B 9 p
12. Etxarri Aranatz 7 p

Asteburuko jardunaldia

ARDOI - ALTSASU
(Larunbatean, 16:15an, Zizur Nagusian)
LAGUN ARTEA B - BAZTAN
(atzeratuta)
ETXARRI ARANATZ - UNIVERSIDAD DE NAVARRA
(Igandean, 15:30ean, Etxarri Aranatz)



Futbola

SAKANAKO
FUTBOL 8 TXAPELKETA

3. jardunaldia jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, abian da Kimuen Futbol 8 Topaketa. Aipatu topaketa txapelketa moduan jokatzen ari da eta asteburuan joaneko lehendabiziko jardunaldia jokatu zen. Igandean 3. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk.

3. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekuk

11:30etan: Urdiain - Kaixo
11:30etan: Txartel - Dantzaleku
12:30etan: Etxarri Aranatz - Arbizu K.T.
12:30etan: Lagun Arte - Sayas
Atsedena: Tipi Tapa

Atletismoa

Behobia-Donostia helburu

Igandean jokatu da 49. Behobia-Donostia lasterketa entzutetsua (20 km), 28.000 korrikalarik hartuko dute parte. Aurreko urtean 116 sakandarrek despiditu zuten proba, eta aurten ere korrikalari sakandar ugari espero dira.

Gurpildun aulkian parte hartuko dutenek 9:30ean hartuko dute irteera, irrizariek 9:40ean eta korrikalariek 10:00etan.

www.behobia-sansebastian.com

Probaren informazio guztia.

Motoziklismoa

Mariñelarena Chesten

Munduko Motoziklismoko 18. eta azken proba jokatu da igandean Valentzian, Chesteko zirkuituan. Alex Mariñelarenak (Blusens Avintia, Kalex) gaur, ostirala, jakingo du proban aritzeko moduan izanen den edo ez. Japoniako erorikoan ezker eskumuturra 4 tokitan hautsi zitzaion pilotu irurtzundarrari. Aurreko ostegunean egin zioten ebakuntza eta atzotik Chesten dago. "Bertako medikuek eman behar ko didate baimena proban aritzeko. Gaur probatuko dut, ebakuntzaren ondoren badut gogo motorrera igotzeko. Ea zeresaten didaten medikuek. Oinazeak ditut, baina igandean lehiatzea espero dut" azaldu digu.

Moto 2 mailan Pol Espargaró (Tuenti HP 40, Kalex) irabazi du Mundiala. Aldiz, Moto GP eta Moto 3ko mundialean ez dago ezer zehaztuta eta Chestek erabakiko du. Larunbatean entrenamendu ofizialak jokatu dira eta igandean lasterketa (Zuzenean Tele5 katean). Mariñelarenari lasterketan aritzeko baimena ematen badiote, nahikoa eta soberan izango du proba bukatzearekin. "Orain arte jokatu ditudan lasterketan izandako progresioa ona izan da, eta Chestera sasoi betean heltzea gustatuko litzaidake, noraino hel naitkeen ikusteko. Ea nola erantzuten dudana gaur" gaineratu digu irurtzundarrak.



Igandean irteera hartuko duen edo ez gaur jakingo du Irurtzungo pilotuak.

Gimnasia erritmikoa

Iskizakoak txapelketaz txapelketa

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldeak gogor ekin dio denboraldiari. Ohiko entrenamenduez gain, makina bat lehiaketetan aritu dira azkenaldian. Horrela, urriaren 26an, Logroñon, Iskizako kimuen taldekoak lehenak geratu ziren euren kategorian. Aurreko asteburuan lanez gainezka ibili ziren. Larunbatean, Beti Aurrera torneoan, Iskizako kimuen taldekoak bigarrenak izan ziren eta Iskizako juniorrak hirugarrenak. Eta igandean, Anaitasuna Torneoan, kimuak bigarrenak izan ziren eta juniorrak laugarrenak.

Espainiako Txapelketa



Abenduaren 12tik 15era Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu da, Granadan. Iskiza Sakanakoak azken 4 hila betetan gogor entrenatzen ari dira txapelketa prestatzeko. Kategoría absolutuan lehiatuko dira eta ea zortetik onena duten.



Magna Errege Kopatik kanpo

GAUR UMACON ZARAGOZAREN KONTRA JOKATUKO DU MAGNA XOTAK

Aurreko ostiralean ligako partidari Inter Movistarren kontra ongi jokatu zuen Magna Nafarroa Xotak, baina Inter talde ahaltzua da, aurrekontu potoloari esker izar handiak dituena, egun munduko jokalarionena den Ricardinho tartean. Eta alde horri esker irabazi zuen Interrek, 2-5. "Interren kontra irabazteko ez duzu partida on bat egin behar; partida perfektua egin behar duzu" azaldu zuen Imanol Arregik.

Errekuperatzeko tarterik gabe, asteartean Errege Kopako final hamaseirenak jokatu zituen Magnak 2. B mailako Maxon-Montcada taldearen kontra. Taldean argi dute aurten lehentasuna liga dela, eta ziztuzten baja ugariak -Dani Saldise, Eseberri, Usin eta Jesulito- asko nabaritu ziren Katalunian. Partida hasi eta berehala 2 gol sartu zituzten katalandarrek. Magnak distantziak txikitu zituen Javi Saldiseren golari esker; baina Maxo-



Javi Saldisek gola sartu zuen.

nek 3. gola sartu zuen. Dena eman zuen Magnak baina ezin izan zuen markagailua irauli.

Errege Kopatik kanpo, ligan murgilduko da, atzera ere, Magna. Egun sailkapenean 7.a da Irurtzungo taldea (12 puntu). Gaur, ostiralean, Umacón Zaragozaren kontra arikoda. Eta errekkuperatzeko apenas tarterik gabe, asteartean 12. jardunaldiko partida jokatu du Bartzelonaren kontra. Erotzeko moduan.

TEEHAK BIRZIKLATZEARI BURUZKO MIKROKONTAKIZUN ETA TXIO LEHIAKETA

Tresna Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinak

Zure tresna zaharrak badu historia bat? Idazten ahal duzu 100 hitz edo 140 karaktere baino gutxiago erabiliz? Parte hartu... eta eramán kotoizko motxila bat opari! Oinarriak eta sariak

www.crana.org webgunean



Ez bota TEEHak edukiontzira, lagundu horiek birziklatzen




Uribek **Txirringa magikoa** hartu du bidea egiten hasteko

Haizea ilobari eskainitako album ilustrazioarekin sormenari bide berria ireki dio Iker Uribek (www.ikneuk.com). Muralak egiten aritua, ilustrazioa ikasten ari da lakuntzarra egun. **Beleixe Irratian (FM 107,3)** Uribek aitortu du beti idatzi izan duela, langintza horretan oso konstantea ez dela izan aitortzearekin batera. "Istoriok sortzea asko gustatzen zait. Oso gustuko dut bai hitzez bai irudiz istoriok sortzea. Eta espero dut hor segitzea".

Ilobak oheratzerakoan ipuinak kontatzen zizkiela azaldu du sortzaileak. "Burua askatzen nuen. Egia esan oso fantasiosoa naiz eta fantasia hutsezko ipuinak ateratzen zitzaizkidan". Bat baino gehiago idatzi zituen. "Hau ez dakit zergatik aukeratu nuen Etxepare sari-aurkezteko". Ez zuen saririk irabazi, eta ez zuen editatzeko asmorik. Baina uda ondoren ordenagailuan zuen lan hura eskuartearen izatea eta zabaltea merezi zuela pentsatu zuen Uribek. "Auto-editatzea erabaki nuen. Nahikoa arrakasta izaten ari da. Eskuz esku ale batzuk saldu ditut, 10 eurotan. Gehiago egingen ditut". Lanarekin pozik gelditu da lakuntzarra.

Ipuina

Uribek berak idatzi eta ilustratu duen aurreneko albumean Maddi eta bere aitona Beppo dira protagonistak. "Haien mundu partikularra eta fantasiakoa da, askorako eman dezakeena". Sortzaileak **Beleixe Irratian (FM 107,3)** azaldu duenez, "Beppo oso



zaharra izan arren, beti dago lanean, gauzak asmatu nahi ditu. Ongi pasatu nahi du. Eta fantasia asko erabiltzen du. Maddi, berriz, aitoren mundu hori erabat disfrutatuz bizi du, zoragarri. Aske sentitzen da".

Haiekin batera, Troski txerri-txoa eta Lur untxia dira protagonistak. "Bizikleta izan daiteke istorioa dinamizatzen duena. Azken batean, bizitza ibiltzea eta gauzak egitea da. Txirringak horretarako aukera ematen digu".

Lauren ibilaren berri emateko teknika mistoa erabili du Uribek: koloretako arkatza eta ordenagailua. "Collagearekin jolastu nahi nuen pixka bat. Gauza berriak probatu". Horretarako, besteak beste, egunkari zatiak erabili ditu. "Batzuk aukeratuak dira, eta bes-

Aurrera begira

Uribek ipuinak eta helduendako istorioak sortzen segitu nahi du. Komikia ere landu nahi du. "Politiki-poliki hasi naiz orain serioago jartzen". Hala ere, Beleixe Irratian (FM 107,3) adierazi du umeendako sortzea errazagoa dela. "Askotan helduok ditugun pentsamendu eta buruko hesiak oztopo bezala ikusten ditut". Ipuin bat idatzi zuen eta ikaskide batek ilustratu zuen. "Ez dakit zer egingen dugun ipuin horrekin. Pixka bat zabaltea gustatuko litzaidake".

teak ez, denboraz oso justu ibili nintzelako. Nik bakarrik dakizkit, baina ipuinaren barruan istorio gehiago daude".

Tximino baten giza kondizioari buruzko hitzaldia

Gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean



Jon Barbarinek Tximino jakintsua obra antzeztuko du gaur, eszenatokian elementu gutxi batzuk dituela. Ihabardarra oiha-nean harrapatutako eta Europara ekarritako tximino baten pape-para jokatu du. Ikuskizunen batean bukatu beharrean tximinoak hitz egiten ikasi eta kultura maila itxurakoa lortuko du.

Bere bilakaeraren inguruko hitzaldia emanen die zientzien akademiako kideei. Giza kondizioa, gizartea eta beste gai filosofikoak izanen dira tximinoaren ahotan. Antzezlanak Franz Kafkaren *Akademia baterako txostena* (1919) idazlan laburra du oinarri.

Ferietako argazki onenak

Larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean

Altsasuko Mendigoizaleak ferietan antolatutako argazki rallyan 46 pertsonak parte hartuzuten. 28. edizio honetako argazki onenak ikusteko aukera izanen da bihar, Iortian proiektatuko baitituzte. Horren ondoren, sari banaketa egingen da. Gainera, argazki lehiaketara aurkeztutako lanak Gure Etxea eraikinean ikusgai izanen dira, astelehenetik aurrera aste batez.

Royo dantza tradizionalari buruzko jardunaldi zientifikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Nafarroako ondare ez-materialaren Artxibok eta Ortzadar Euskal Folklore Elkartek jardunaldi zientifikoa antolatu zuten, herenegun izan zena. Dantza tradizionalaren Atlas Nafarroan proiektua aurkeztu zen. Herrialdeko 275 dantzaren berri zehatza emanen du.

Jardunaldian Nafarroako dantza tradizionalaren identifikazioa, dokumentazioa eta ikerketa nola egin aztertu zen. Nafarroako Dantzarien Biltzarraren koordinatzaile Iosu Royo arituzen hizketan. Irurtundarrak *Dantza tradizionalaren identifikazioa eta dokumentazioa Nafarroan: boluntariora* izenburua duen azalpena emanen du.

Artea, indarkeria eta feminismoaz hizketan

Larunbatean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Josebe Iturrioz Medeak taldeko kide eta berdintasun aholkularia izanen da bihar hitzaldia emanen duena. Sexu indarkeria fenomeno konplexua da eta gutxitan aztertzen da sakontasunez. Indarkeria matxista jendartea egituratzeko balio du eta pertsonen arteko botere harremanak desorekatuta mantentzeko tresna da. Feminismoak arlo ugarietatik landu du gaia. Iturriozek, bihar, artearen ikuspegitik jorratuko du sexu indarkeria, haren sakontasuna eta konplexutasuna azaltzeko.

bazterretik

Andoni Igoa

Egurrezko egiturak

Betiko arian jarraitzeagatik, gaurkoan ere, beti buruan ditudan egurrezko egiturez hitz egingo dut. Beste batzuetan esan dudana bezala, egurrezko egiturak oso nabarmenak izan dira gure gizartean orain dela gutxi arte. Gero hormigoia sorre-arekin gure eraikuntzetatik baztertuak izan dira.

Dirudienez, egurra gehiago industrializatu denetik, pixkanaka gure gizartera itzultzen ari da aukera anitzemanez. Izan ere, lehen egur egiturak zuhaitzen neurrietara mugatuak zeuden,

baina gaur egun 40 m baino handiagoko elementuak egin daitezke egur laminatu kolatu sistema dela eta. Gaur Sakanan gauzatu dugun adibide bat azaldu nahiko nuke. Hau Arbizuko Alain Berastegi bere kabuz eraikitzen ari den borda izango litzateke. Bere garaian Alaine, nire anaia Pellori eta niri, egurrezko borda bat egiteko asmoa zuela esan zigun eta horren egitura diseinatzeko enkar-gua egin zigun.

Plantan 25x15 m-ko neurria izan beharko zuen borda bat zen. Zabalera 15 m-ko distantzia gainditzeko, egur laminatuz eginiko portiko

sistema batera jo genuen. Portiko nagusiak sekzio aldakorra duten elementuez egitea proposatu genuen eta hauen loturagarritasun aktornilozko koroekin osatu genituen. Oinarri guztiak hormigoizko hanka batzuen gainean egitea ezinbestekoa ikusi genuen, ahal den heinean egurra uraren kontaktu jarrietik urruntzeko. Gainontzeko egitura, sistema konbentzionalagobatekin diseinatu genuen.

Nahiz eta eraikin hau bukatu gabe egon, argazkian ikus daitekeen moduan, emaitza ezin hobea izan-go delakoan nago.



Pozgarria iruditzen zait Sakanan horrelako eraikinak ugartzaren ari direla ikustea. Ea horrelako adibi-

deak ikusita, aukera gehiago ematen dizkiogun beti gertu izan dugun material ekologiko honi.

Dekorazio arteak ikusgai



Azaroaren 12tik 29ra, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Yolanda Arnedoren ikasleenera kusketa asteartetik aurrera bisitatzeko aukera izanen da. 45 bat ikasleren lanak izanen dira ikusgai. Dekorazio-arteak izanen da nagusi erakusketan. Pasta edo papera-ekin taula edo oihal gainean sortutako testurak oinarri hartuta

koadroak, ispiluak eta beste izanen dira ikusgai. Baita harrira imitatzen duten eskulturak, teila apaingarriak, zaharberritutako altzariak, bisuteria eta abar. Birziklatze lan asko ere izanen da ikusgai.

Arte Ederrak ikasketak eginak ditu Yolanda Arnedok. Haiek despiditu ondoren diseinu munduan sartu zen. Sortzaile askoren lanak direnez jende asko bisitatuko du, aurreko urteetan bezala.

Taupadak bat eginak



Bihar, 19:30ean Irurtzango kiroldegian Fran Idareta, Haize Berriak banda eta Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko abesbatzak

Eskertza

Idaretak, bihotzez, bere esker ona azaldu die ikuskizuna posible egin duten musikari eta abeslari guztiei. Abesbatzetako zuzendariak: Fermin Idareta, Alicia Armendariz eta Inma Arroyo. Esker oneko hitzak ere izan ditu "erantzukizun garrantzitsua" hartu duen Luis Orduñarendako. "Horiena guztiena izan da Taupadak ikus-

kizunaren meriturik aipagarriena". Betisa Anda, Amaia Ijurra eta Patxi Mikeo kultur teknikariei eta lan egiten duten udalei ere luza-tu die eskerrak musikariak. Alberto Gonzalez moldatzailea, Mikel Mendibil diseinatzaile grafikoak, Amaia Erdozia eta Oscar Corroza kamerak, Amaia Amilibia argazkilaria eta Jorge Cordon soinu eta argi teknikariari esker-rrak eman dizkie ere.

Ibarreko sortzaileen lanak ikusteko azken egunak

Azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara. Gainera, ostiralean 11:00etatik 14:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Ostiralean despidituko da II. Altsasuko Arte Azoka. Sakanako 26 sortzaileen eta 5 gonbidaturen lanak ezagutzeko aukera ematen du erakusketak. Aldi berean, Sakanako artearen ikuspegia izateko aukera aparta da erakusketa. Ikusgai dauden obra guztiak, gainera, salgai daude. Dene-tariko teknikak eta estiloak opatu-tuko ditu bisitariak erakusketan.



Hesian, Hala Bedi irratiaren bilduman

Gasteizko Hala Bedi irrati librea-k 30 urte bete ditu eta urteurrena dela eta makina bat kontu antolatu dituzte. Horietako bat *Hala Bedi 30 urte Kolpez Kolpe* disko bildumaren argitalpena da. Irrati librearen ezinbesteko osagaia izan da musika hiru hamarkada horietan.

Diskoarekin Euskal Herrian sorturiko musikari eta aldi berean Hala Bedi Irratiari omenaldia egin nahi dute. Horregatik, Euskal Herriko 15 taldek, azken 30 urte hauetan Euskal Herrian egin diren 15 abestiren moldaketak egin dituzte. Hesian taldekoak daude tartean. Alaitz eta Mainerren *Ahets bat* kantuen moldaketa egin dute, abestiaren sortzaileen laguntzaz.

Musikari sakandarrak Amerikan

Gozategi Argentinan dago, Vendetta pasa den astetik dago kontinentean



Herenegundik dago Argentinan Gozategi. Iñigo eta Imanol Goikoetxearen taldeak bere 7. diskoa, *1992-2012 All Stars*, aurkeztuko du. Bi emanaldi izanen dira Kordobako Villa Maria udal anfiteatroan. Argentinako Euskal Astea eta Euskal Etxeen festa aurten Kordoba hiriak hartzen du eta antolatzaileek Gozategikoak gonbidatu dituzte festa alaitzeko. Duela bi urte ere gonbitea jaso zuten, baina arazo batzuk tarteko ezin izan zuten joan. Orain, beraz, "ilusioz betetako zakuak daramatzagu bizkarrean". Gaur eta bihar emanen dituzte kontzertuak. Egonaldia gehiago luzatuko dute.

Atzo, Gaur eta Bihar diskoa aurkezteko bira Hego Amerikara eraman ditu Vendetako musikariak. Pello Reparazen (tronboia eta ahotsa) eta Luisillo Kalandrakaren (baxua, kontrabaxua eta ahotsa) taldearen ibilbide amerikarra lastailaren 30ean hasi zen Liman (Peru). Hurrengo egunean Txilera aldatu ziren eta herrialde hartan lau emanaldi eman zituzten: hiru Santiagon eta beste bat Concepcionen.

Herenegun Montevideon, Uruguai hiriburuan aritu ziren. Atzo Argentinara lekualdatu dira eta hiru emanaldi eskainiko dituzte, aurreneko biak Buenos Airesen eta azkena Rosarion.

Etxean eta etxerako, ibarre-rako, sortutako ikuskizunarekin oholtzetatik despidituko da Fran Idareta musikaria. Irurtzundarrak sortu, moldatu eta ekoizturiko *Taupadak* ikuskizunaren atzeneko emanaldia izanen da biharkoa. Akordeoi-lariak bere aldamenean 140 abeslari eta musikari izanen ditu "euskararen jatorri mitologikoetan sakontzen duen ikuskizun musika" eskaintzeko. Gainera, Gor-ka Hermosa (bandoneoia), Gari-koitz Mendizabal (txistua) eta Joa-quin Taboada (pianoa) izanen dituzte lagun. Ekitaldiak Irurtzun-go erraldoi eta buruhandien kom-partsa omentzeko balioko du. Haien pertsonaietako batzuk ikus-kizuneko protagonistetako batzuk ere dira gainera.

Euskara da ikuskizunaren mui-na; "euskaldunon taupada, bihotza". Ikuskizuneko gidaria, off-eko ahotsa, euskara izanen da, sortzailearen testuak emanez. Mitologia, bai Sakanakoa bai Nafarroakoa, presente dago kontakizun

horietan. Baina musika ere pro-tagonista bada. Doinu tradizio-na-letik abiatuta banda eta abesba-tzendako armonizazio berri, aberats eta modernoak sortu ditu Idaretak, Alberto Gonzalez molda-tzailearekin batera.

Erantzuna

Irurtzundarra pozik da ikuskizu-nak izan duen harrerarekin. "Altsasun, aurreneko saiorako sarrerak bezperan agortu ziren eta bigarren saioan hiru laurdenak saldu ziren. Etxarri Aranatz, 250 sarrera inguru. Jendea hunkitzea lortu genuen: ezinbestekoa zen *Taupadak* lelopean prestatuturiko ikuskizun batentzat". Idaretak esan digunez, "gu ere hunkitu gara oholtza gainean. Ikusleen aurrean emaitzak harrigarriak izan ziren. Entseguetan jendea asko

ahalegindu da. Baina zuzeneko saioetan, emaitzei so eginez, aha-legina biderkatu egin dela argi geratu da".

"Orain dela gutxi Suediako uni-bertsitate bateko zientzialari batzuek abesbatza batean abesten duten pertsonen bihotzek aldi berean taupada egiten dutela argi-taratu dute. Horren arabera, abes-ten hasi eta segundo gutxitara, bihotz guztiek erritmo berdina daramate. Hau da, bihotz asko tau-paka, baina hala ere, guztiak bat izango balira bezala jokatzeko dute. Hau da egun hauetan guri gerta-tu zaiguna: bihotz askoren taupa-den bitartez gauzak adierazi ditu-gun arren, bihotz bakar baten tau-padak izango balira bezala sentitu baititugu. Musikariena eta entzu-leena bat eginda. Zorionak guztioi lorpenarengatik".

EZAGUTU BERRIA IORTIAKULTURA.COM

JUSTIN Y LA ESPADA DEL VALOR
OSTIRALA 10 17:00

BLUE VALENTINE
OSTIRALA 8 21:45 IGANDEA 10 20:00

LA GRAN FAMILIA ESPAÑOLA
OSTIRALA 8 22:00 IGANDEA 10 20:10

iortiakultura.com

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 50%	euria: 56%	euria: 93%	euria: 30%	euria: 17%	euria: 30%	euria: 20%	
Min: 11 Max: 13	Min: 4 Max: 13	Min: 8 Max: 12	Min: 7 Max: 14	Min: 6 Max: 13	Min: 7 Max: 13	Min: 5 Max: 11	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	21.1	-0.2	68.9
Altsasu	20	2.5	65.7
Aralar	13.5	1.4	101.8
Urbasa	18	0	70.1

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	☾	☽	☾	☽
	10	17	25	3

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Azaroko bazkide zozketa

AZAROKO SARIAK:

1- KUKUXUMUKU MAINDIRE LOTE BAT + 2 SARRERA EKAINBERRI + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

2- PIRITX ETA PORROTX SUDADERA + LACTURALE ZENTORAKO BI SARRERA + XOTA IKUS-

TEKO 2 SARRERA

3- SUKALDEKO LACTURALE ZAPIA + LACTURALE ZENTORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

4- LIBURU LOTEA + LACTURALE ZENTORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

>> 11 galdera

Basi Dorronsoro, Antonio Ortiz, Mari Carmen Cruz eta Luis Martil

Irurtzungo Elikagaien Bankua

Testua: Maialen Huarte Arano



Elkarriketa osorik: www.guaixe.net-en

Eguberriko postal pertsonalizatuak

eska ezazu zure logoarekin!

Orri bakarrekoak

50 ale 55 €

100 ale 65 €

150 ale 75 €

Diptikoak

50 ale 77 €

100 ale 113 €

150 ale 142 €

Hainbat diseinu aukeran. Eskatu aurrekontua.

948 564 275 argi@guaixe.net

guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/

1.- Zer da Elikagaien Bankua?
Egitasmo bat da, beharrak dituzten familiei laguntzeko asmoa duena. Duela hamabi urte hasi ginen Irurtzunen elikagaiak behartuenei banatzen. Hasiera haietan sei familia etortzen ziren gurera janari eskean; aurtengo udan, ordea, 70 familiari eskaini behar izan diegu laguntza. Une honetan 59 dira hilabetearen behin janaria jasotzen dutenak. Gehienak bertan bizi dira; badira batzuk inguruko herritakoak.

2.- Zergatik hasi zintzen lan boluntario honetan?
Bizilagunen beharrak ikusita hasi ginen elikagaien banaketa egiten. Hasieran gure lana txikiagoa zen, xumeagoa. Sei familiarentzat elikagaiak biltzea ezin da hirurogeirentzat biltzearekin alderatu.

3.- Nondik jasotzen du Elikagaien Bankuak beharrezkoa duen janaria?
Nafarroako Elikagaien Bankua Fundazioak erkidego osora banatzen du janaria, eskualdeko osatu diren taldeen bitartez ahalik eta jende gehien artatzeko. Hilabetearen behin Irurtzuna hurbiltzen da kamioia 1.200 kg inguru janariarekin. Horrez gainera, Europar Batasunetik ere etortzen da laguntza lau hilabetearen behin.

4.- Zenbat lagun aritzen zarete Irurtzunen lan horretan?
Lan boluntarioa da eta une honetan lau aritzen gara, duela bi urte arte gu bakar-bakarrik. Baina gero eta familia gehiagoren eskaerarekin, Irurtzungo Gizarte Zerbitzuarekin harremanetan jarri ginen. Bi urte dira elkarlanean ari

garela; beraiek familien datuak aztertu eta erabakitzen dute elikagaien bankuaren laguntza dagokien ala ez, kudeaketa lana egiten dute batez ere.

5.- Zer dago janariz beteriko otzara horietako bakoitzean?
Denetarik izaten da, hilabetearen araberako betiere. Faltan ez direnen artean: arroza, dilistak, babarrunak eta lekak. Gainera olioia eta esnea ere banatzen ditugu, gailetak, kontserbako latak, tomatea, jogurtak... Produktu freskoak ere iristen dira, batez ere fruta eta barazkiak, eta horiek ahalik eta azkarren banatzen saiatzen gara.

6.- Hilabetearen behin banatzen dituzue otzarak?
Bai. Hilabete erdialdeko ostegunarekin iristen da Iruñetik Nafarroako Elikagaien Bankuko janaria. Kamioia hustu eta gauzak txukundu egiten ditugu arratsaldean. Ostiral goizean egiten dugu banaketa, familiak janaria dugun egoitzara etortzen dira bila.

7.- Krisiaren eragina antzeman al duzue eskarian?
Bai. Hamabi urte joan dira hasi ginenetik elikagaien banaketa egiten, eta ordutik hona hazi egin da bertakoen egoeraren zailtasuna, esanahi da, hasiera batean gehiago zirela atzerritarrak laguntza eske zetozenak, baina duela zenbait urte parekatu egin da hori, eta, orain, etorkinak zein bertan jaio-takoak datoz guregana.

8.- Laguntza behar duzue?
Hilabete batzuk dira boluntarioen zerrenda osatzen ari direla Gizarte Zerbitzuan, baina, oraindik inork ez du gure proiekturako bere burua

eskaini. Laguntza behar dugu, hilabetearen behin kamioia iristen denean janari guztia deskargatzeko eta udalak uzten digun pisu batean antolatuta uzteko. Familia bakoitzari bere kutxa prestatzeko ere laguntza ongi etorriko litzaigukela lan handia baita lauren artean egiteko.

9.- Familien artean behar handia dagoela uste duzue?
Saskiak jasotzera datozenen artean bai. Oinarrizko errenta jasotzen dute zenbait familiek eta 400 euro ingururekin egin behar izaten diote aurre egunerokoari. Beste askok oinarrizko errenta ez dute jasotzen baina egoera antzerakoa dute. Irurtzungoak izatea eta diru-sarrerak txikiak jasotzea da otzara bat jasotzen duenaren perfla.

10.- Azaroaren 17rako elikagaien bilketa handia antolatu duzue Irurtzunen?
Pilota partidak antolatu ditugu arratsaldeko. Helburua da ikusterako doan elikagaiz beteriko poltsa bat ekartzea eta horren truke gozatu ahal du partidaz. Gainera, zozketa baterako txartelak salduko ditugu, ateratzen den diruarekin sortzen diren gastu txikiak betetzeko. Partidara joan ezin duenak eta jakiekin edo txartelak erositzen lagundunahi duenak gizarte zerbitzuen bulegotik pasa daiteke heldu den astean, goizez.

11.- Sakanan bada beste Elikagaien Bankurik?
Zoritxarrez, bai. Uharte-Arakilen duela hiru hilabete hasi da jubilatutako talde bat 7 familiarentzat elikagai bilketa egiten. Etxarri-Aranatan ere 30 familiari eskaintzen dizkiete otzarak eta Altsasun ere hasiak dira.